DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAN HIRI HONDAKINAK BILTZEKO LURPEKO EDUKIONTZIEN 63 MULTZOREN HORNIDURA, INSTALAZIO ETA MANTENTZEARI DAGOZKION BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. XEDEA

2. ENTREGA EPEA ETA KONTRATUAREN IRAUPENA

3. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA
   3.1 KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA
   3.2 LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA
   3.3 LIZITAZIOKO PREZIO UNITARIOAK
   3.4 PREZIOEN BERRIKUSPENA

4. JARDUERA EREMUA - ERABERRITU BEHARREKO EDUKIONTZIEN ZERRENDA

5. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOAK
   5.1 HORNIDURA ETA MANTENTZEAREN BALDINTZA OROKORRAK
   5.2 MANTENTZEAREN BALDINTZA OROKORRAK

6. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

7. ENTREGA EPEA ETA LANA, KONTROLA ETA IKUSKAPENAK EGITEKO PLANA

8. BERMEA

9. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
   9.1 FORMULEN BIDEZ EBALUATZEKO DOKUMENTAZIOA
   9.2 BALIO JUDIZIOEN BIDEZ EBALUATUKO DEN DOKUMENTAZIOA - TXOSTEN TEKNIKOA

10. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK
   10.1 FORMULA BAT APLIKATUZ ESLEITZEN DIREN PUNTUAK EMATEKO IRIZPIDEAK (IRIZPIDE AUTOMATIKOAK).
   10.2 BALIO JUDIZIO BATEN ONDORIOZ ESLEITZEN DIREN PUNTUAK EMATEKO IRIZPIDEAK

11. INFORMAZIO OSAGARRIA

12. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

13. ARAU BEREZIAK, ENPRESA KONTRATISTAREN LANGILE LAN-KONTRATUDUNEI DAGOKIENEZ

14. BESTE BATZUEK JASAN DITZAKETEN KALTEAK

DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAN HIRI HONDAKINAK BILTZEKO LURPEKO EDUKIONTZIEN 63 MULTZOREN HORNIDURA, INSTALAZIO ETA MANTENTZEARI DAGOZKION BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1) XEDEA

Honako kontratu honen oinarritzat hartuko diren hainbat baldintza tekniko zerrendatzea da baldintza agiri honen xedea:

1.1. Hiri hondakinak eta hondakin birziklagarriak (adibidez, papera eta kartoia, ontziak eta beirakiak) biltzeko edukiontzien lurpeko 63 sistema egokitzeko behar den hornidura, instalazioa eta obra egitea; gaur egun, edukiontzi horiek Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako hainbat lekutan dauden 11 gunetan daude banatuta.

Edukiontzi multzoen hornidurak honako hauek hartzen ditu barnean, gutxienez:

- Errefusa, paper-kartoia eta ontziak biltzeko lurpeko 53 edukiontzirentzako jasotze hidraulikoko ekipamendu mekanikoak erostea, eskuineko albotik automatikoki kargatzen den kamioiarekin husteko; eta garabi kamioiarekin altxatzeko kako bikoitza duten multzoak, beirakiak biltzeko 10 edukiontzirentzat.
- Tapak eta tapa horiek irekitzeko sistema
- Tapak irekitzeko edo edukiontziak altxatzeko ekipamendu hidraulikoa.
- Hondakinak sartzeko zutabea eta buzoia.
- Urrutik eragiteko kontrolagailuen hornidura.
- Husteko gailua eta ura ateratzeko ponpak, edota nitxoen hondoan geratzen diren lixibiatuak ateratzeko eta hurbilen dagoen estolda zulora isurtzeko obra.
- Segurtasun gailuak.

Multzoen instalazioak honako hauek hartzen ditu barnean, gutxienez:

- Proiektu bat egitea eta instalazioa definitzen duen dokumentazioa prestatzea.
- Lehendik dauden elementu guztiak desmuntatu, kendu eta baimendutako enpresa kudeatzailera eramatea.
- Zuloak garbitu eta egokitzeko lanak.
- Markoak berrerabili nahi badira, haien egoera aztertu, konpondu, garbitu eta tratatzea.
- Obra gauzatzea, instalazioa egiteko beharrezkoa izanez gero.
- Multzo berriak, tapak eta buzoiak jartzea.
- Harguneak eraberritzea: elektrikoa eta drainatzea.
- Instalazioa probatzea eta martxan jartzea.
- Instalazioa egiteko eta, gero, zoladura lehengoratzeko prebentzio plana.
-

1.2. 11 guneetan kokatutako edukiontzien lurpeko sistemen mantentze osoa –prebentziozkoa zein zuzentzailea– (guztira, lurpeko 63 edukiontzi). Honako helburu hauek bete nahi dira:

- Mankomunitatearen jabetzako lurpeko edukiontziak beti erabilgarri eta erabiltzeko prest egotea.

- Edukiontziak baldintza onetan egotea, higiene, garbiketa eta mantentzeari dagokionez.
- Matxurak eta kalteak ahalik eta efizientzia, eraginkortasun eta azkartasun handienaz konpontzea, eta kontratistak egoera horiek detektatzeko sistema propio bat edukitzea.
- Edukiontzien mantentze osoa, hau da, aldian behingo eragiketa guztiak –programatutakoak zein unean unekoak–, funtzionamendu zuzena bermatzeko, arazo teknikoak saihesteko eta gune batean lurperatuta dauden unitate guztien matxurak konpontzeko behar direnak, hala nola koipeztatzea, garbitzea, osagaiak aldatzea, konponketak eta abar, baldintza-agiri honetan aipatzen den moduan.
- Edukiontzien itxura estetikoa baldintza onenetan mantentzea; horretarako, aldian-aldian garbituko dira, pintura geruza eta logoak berriz pintatu eta abar.

* *"Lurpeko edukiontzien multzoa"*, "*edukiontziaren lurpeko sistema*" edo "*lurpeko edukiontzia*" terminoak sistema osoari dagozkio, hau da, zuloguneak, altxatzeko ekipamenduak, itxitura sistema, hondakinak sartzeko metalezko kutxa, buzoiak, armairu eta sistema elektrikoak, ponpak eta drainatze sistema, baita multzoak zuzen funtzionatzeko behar dituen osagarri guztiak ere hartzen dituzten barnean.

2) ENTREGA EPEA ETA KONTRATUAREN IRAUPENA:

Edukiontzi multzoak hornitu eta instalatzeko epea gehienez ere 9 hilabetekoa izango da, kontratua formalki egiten den egunetik lurpeko edukiontzien multzoak entregatu eta martxan jarri arte.

Mantentze zerbitzuaren iraupena zortzi (8) urtekoa izango da, lurpeko edukiontzien multzoen harrera egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; iraunaldia bi aldiz urte batez luzatu ahal izango da, gehienez ere hamar (10) urtera iritsi arte.

Multzoak hornitu eta instalatzeko zerbitzuarekin batera adostutako mantentze lanak egiteko kontratua enpresa berak egin behar du, esklusibotasun arrazoiak direla medio. Edukiontzi multzo berrientzat 8 urteko amortizazio epea ezartzen da, baina balio-bizitza beste 2 urtez luzatu ahal izango da.

3) KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

3.1) KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lurpeko edukiontzien 63 multzo hornitu, instalatu eta mantentzeko kontratuaren balio zenbatetsia (9 hilabeteko epea hornitu eta instalatzeko, eta mantentze lanak 10 urtez) 1.619.508,73 euro da, BEZa kanpo; hain zuzen, 932.236,00 euro, BEZa kanpo, lurpeko edukiontzien 63 multzo hornitu eta instalatzearen eta obra egitea beharrezkoa izango balitz, balio zenbatetsia da, eta 687.272,73 euro, BEZa kanpo, hornitutako multzoen mantentzeari dagokio.

3.2) LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua, lurpeko edukiontzien 63 multzo 9 hilabetetan hornitu eta instalatzeko, eta zortzi urtez mantentzeko, 1.793.285,56 euro da, BEZa barne. Zenbateko horretan, 1.128.005,56 euroko gehieneko lizitazio aurrekontua, BEZa barne, lurpeko edukiontzien 63 multzo hornitu eta instalatzeari dagokio, eta mantentzeari urteko 83.160,00 euroko gehieneko lizitazio aurrekontua, BEZa barne; azken horretan, 45.360,00 euro/urte prebentziozko mantentzeari dagokio, eta 37.800,00 euro/urte mantentze zuzentzaileari.

3.3) LIZITAZIOKO PREZIO UNITARIOAK

a) HORNIDURA ETA INSTALAZIOAREN UNITATEKO PREZIOAK

Lizitatzaileek honako banan-banako prezio hauek adieraziko dituzte eskaintzan, BEZa barne, beren proposamenen baldintza teknikoak oinarri harturik:

- 1. Prezioa: ALBOTIK KARGATZEKO LURPEKO EDUKIONTZI BATERAKO MULTZOA: Eskuineko albotik automatikoki kargatzen den kamioiak jasotzeko moduko lurpeko edukiontzi baterako multzoa fabrikatu, hornitu eta instalatzearen prezio unitarioa, edukiontziaren edukiera gehienez ere 4.000 litrokoa bada. Barnean hartzen du: Instalazio proiektua; obra zibila, beharrezkoa izanez gero, eta martxan jartzeko behar diren eragiketa eta proba guztiak. Multzoak barnean hartzen ditu: Edukiontziak altxatzeko ekipamendua, buzoi herdoilgaitza, tapa eta taparen kontra dagoen zoladuraren akabera.

  Prezio unitarioa ezingo da 19.360,00 €/unitatea baino handiagoa izan (BEZa barne). Fabrikatu, hornitu eta instalatu beharreko ekipoen kopuru estimatua 43 izango da.

- 2. Prezioa: ALBOTIK KARGATZEKO LURPEKO 2 EDUKIONTZITARAKO MULTZOA: Eskuineko albotik automatikoki kargatzen den kamioiak jasotzeko moduko lurpeko 2 edukiontzitarako multzoa fabrikatu, hornitu eta instalatzearen prezio unitarioa, edukiontziaren edukiera gehienez ere 4.000 litrokoa bada. Barnean hartzen du: Instalazio proiektua; obra zibila, beharrezkoa izanez gero, eta martxan jartzeko behar diren eragiketa eta proba guztiak. Multzoak barnean hartzen ditu: Edukiontziak altxatzeko ekipamendua, buzoi herdoilgaitzak, tapa eta taparen kontra dagoen zoladuraren akabera.

  Prezio unitarioa ezingo da 22.990,00 €/unitatea baino handiagoa izan (BEZa barne). Fabrikatu, hornitu eta instalatu beharreko ekipoen kopuru estimatua 5 izango da.

- 3. Prezioa: KAKO BIKOITZEKO LURPEKO EDUKIONTZI BATERAKO MULTZOA: Besodun kamioiarekin jasotzeko moduko lurpeko edukiontzi baterako multzoa fabrikatu, hornitu eta instalatzearen prezio unitarioa, edukiontziaren edukiera gehienez ere 3.000 litrokoa bada. Barnean hartzen du: Instalazio proiektua; obra zibila, beharrezkoa izanez gero, eta martxan jartzeko behar diren eragiketa eta proba guztiak. Multzoak

barnean hartzen ditu: Edukiontzia eta altxatu eta ixteko sistemak, beheko ateak deskargatzeko, erorketen aurkako sistemak, buzoi herdoilgaitzak, tapa eta taparen kontra dagoen zoladuraren akabera.

Prezio unitarioa ezingo da 8.470,00 €/unitatea baino handiagoa izan (BEZa barne). Fabrikatu, hornitu eta instalatu beharreko ekipoen kopuru estimatua 10 izango da.

- 4. Prezioa: KONTROL SISTEMA ELEKTROHIDRAULIKOA: Lurpeko edukiontzien 3-11 multzo kontrolatu eta eragiteko sistema elektrohidraulikoa ekoiztu, hornitu eta instalatzearen prezio unitarioa. Potentzia eta maniobrak kontrolatzeko armairua, motorra eta zentral oleohidraulikoa, hargune elektrikoa, kableatua, instalazio osagarriak, igorlearen hargailuak, zirkuitu elektrikoak, oleohidraulikoak eta abarrak dituen kutxatilak osatzen du sistema. Osagaiak elkarrekin konbinatuta daude, multzoak kontrolatu eta eragiteko, erabat instalatu eta probatu ondoren.

  Prezio unitarioa ezingo da 5.151,96 €/unitatea baino handiagoa izan (BEZa barne). Fabrikatu, hornitu eta instalatuko diren sistemen kopuru estimatua 11 izango da.

- 5. Prezioa: DRAINATZE SISTEMA: Zuloguneetatik ura ateratzeko ponpatze sistema – elikatze elektrikoa, husteko hodiak, balbulak, babes elektrikorako ekipamenduak, buiak eta abarrak barne– ekoiztu, hornitu eta instalatzearen prezio unitarioa. Erabat instalatuta eta probatuta.

  Prezio unitarioa ezingo da 2.420,00 €/unitatea baino handiagoa izan (BEZa barne). Fabrikatu, hornitu eta instalatuko diren sistemen kopuru estimatua 11 izango da.

- 6. Prezioa: KONTROLAGAILUA: Multzoak urrunetik eragiteko kontsola igorlearen prezio unitarioa.

  Prezio unitarioa ezingo da 786,50 €/unitatea baino handiagoa izan (BEZa barne). Fabrikatu, hornitu eta instalatu beharreko sistemen kopuru estimatua 16 izango da.

b) MANTENTZEAREN PREZIO UNITARIOAK:

Prebentziozko mantentzeari dagokionez, honako hau eskainiko da:

- 7. prezioa: Lurpeko NITXO BAKOITZAREN MANTENTZE-LAN PREBENTIBOA egiteko eskaini beharreko oinarrizko prezio unitarioa 120,00 eurokoa izango da gehienez, BEZa barne. Mantendu beharreko lurpeko nitxoen kopurua 63 unitatekoa da.

  Urteko Prebentziozko Mantenimenduan jasotako lanak, dokumentu honetako 5.2 puntuan MANTENTZEAREN BALDINTZA OROKORRAK burutuko dira gutxienez dokumentu honetako taulan zehaztutako programaren arabera. Maiztasuna bi hilez behingo, lau hilez behingo, sei hilez behingo edo urterokoa izango da, zereginaren arabera.

Lizitatzaileak eskaintzen duen oinarrizko unitate-prezioa honela kalkulatuko da: urteko guztizko prezioa (BEZa barne) zati lizitatzailea prest dagoen 63 nitxoen prebentziozko mantentze-lanengatik, baldintza-agiri honen 5.2 puntuan zehaztutako programaren arabera, eta, horren arabera, 6 produktuko mantendu beharreko nitxoen guztizko kopuruarekin; hau da, lizitatzaileak hitzematen duen urteko prezioa zati urteko prezioa (BEZ barne) egingo da. 63 edukiontziren mantentze prebentiboa egitea, baldintza-agiri honetako 5.2 puntuaren programaren arabera, 378ren artean, hau da, mantentze-lanak egin behar zaizkien lurpeko nitxoen kopurua bider 6.

Mantentze zuzentzaileari dagokionez, honako hau eskainiko da:

Mantentze-lanetako zerbitzuak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko zerbitzu teknikoek eskatu ondoren baino ez dira sortuko.

- 8. Prezioa: MANTENTZE ZUZENTZAILEAN ERABILI BEHARREKO ESKULANAREN ORDUKO TARIFARI dagokion lizitazioaren gehieneko prezio unitarioa gehienez ere 50 euro/ordu izango da, BEZa barne.
  Honako kontzeptu hauek ezin izango dira fakturatu mantentze lanen artean (ez prebentziozko mantentzean, ez mantentze zuzentzailean):
  - Udalerri batetik bestera joaten emandako denbora.
  - Adjudikaziodunaren lan egoitzatik konpondu behar diren zuloak dauden mankomunitateko udalerrietarako joan-etorrietan emandako denbora.
  - Lanerako materiala hornitzeko egindako joan-etorriak.

  Hortaz, fakturatzen den orduko tarifa lurpeko unitateetan benetan egin den lanari bakarrik dagokio.

- 9. Prezioak: Gehieneko prezio unitarioak, mantentze lanak burutzeko behar diren ORDEZKO PIEZEI dagozkienak, ondoko taulan agertzen dira:

ORDEZKO PIEZEN KODEKETA	Gehieneko prezio unitarioa (BEZa barne)
9.1. Kaxa elektrikoa	
9.1.1 Motorra, 4 kW	441,65
9.1.10 Multzoaren kontrolerako modulua	972,84
9.1.11 Urrunetik kontrolatzeko panela	848,69
9.1.13 Elikatze iturria, Murelektronik 24 v dc 20 A	799,79
9.1.15 Tag irakurgailua, tag kodearen bidez irekitzeko	692,63
9.1.17Kontsola igorlea, 433 mhz	762,30
9.1.25 Kontrol zentralaren modulua	1.210,00
9.1.34 Banagunea	2.731,58
9.1.35 Rack 3EQ kita	5.671,87
1.36 Diferentziala	185,93
9.2. Zirkuitu hidraulikoa	
9.2.1 Multzo hidraulikoa	
9.2.1.3 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 3. gunea	7.060,35
9.2.1.4 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 4. gunea	7.731,90
9.2.1.5 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 5. gunea	8.409,50

ORDEZKO PIEZEN KODEKETA	Gehieneko prezio unitarioa (BEZa barne)
9.2.1.6 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 6. gunea	9.075,00
9.2.1.7 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 7. gunea	9.752,60
9.2.1.11 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 11. Gunea	12.295,33
9.2.9 CLT zilindroa	534,82
9.2.13 Ponpa bikoitza	568,70
9.2.22 Elektrobalbula, C-3DG4U	454,02
9.3. Plataforma jasotzailea	
9.3.1 Plataformaren polea eta gidariaren multzoa, clt 19-24	309,05
9.3.10 Gomazko zorua	99,70
9.3.13 Xafla galvanizatua	39,81
9.4. Tapa eraisgarria	
9.4.2 Tapa multzoa	1.245,00
9.5. Ura ateratzeko ponpa	
9.5.2 Ur ponpa + kita	878,16
9.6. Kablea	
9.6.4 Kablearen gidaria	407,20
9.7. Buzoia	
9.7.1 Buzoiaren danbor herdoilgaitza	2.119,19
9.7.2 Buzoiaren atea, eskuz irekitzekoa (danbor herdoilgaitza)	1.882,52
9.7.3 Buzoiaren danborra	638,88
9.7.4 Buzoia blokeatzeko multzoa	313,63

Nahitaezko baldintza da unitateko prezioak ematea, BEZa barne, taulan agertzen diren kontzeptuak, kodeak eta izenak adierazita; datu horiek baldintza agiri honen 10.1.4 apartatuan erabiliko dira.

Adierazitako prezioez gain, lizitatzaileek multzoen piezakatzea aurkeztuko dute, zerrendan agertzen ez diren osagaien prezioa –tarifan ezarritakoa– adierazita.

Bai prebentziozko mantentzea, onartzen den programaren arabera, bai mantentze zuzentzailea, zerbitzu teknikoek aldez aurretik eskatuta, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean hornitu eta instalatu diren multzo guztietan egingo da, multzo horien erabilera honako hau delarik:

- Errefusaren bilketa.
- Paper eta kartoiaren gaikako bilketa.
- Ontzi arinen gaikako bilketa.
- Beiraren gaikako bilketa.

Baldintza agiri honen 4. apartatuak gune bakoitzean dauden bilketa unitateei buruzko informazioa jasotzen du.

Kontratuak iraun bitartean, gune kopurua alda daiteke, eta adjudikaziodunaren ardura izango da lurpeko edukiontzien zuloetan mantentze zuzentzailea zein prebentziozkoa egiten dela bermatzea, kopuru hori aldatzen bada.

Adierazitako lizitazio prezioek barnean izango dituzte kontratistak –kontratazioa arautzen duten baldintza-agirietan ezarritako betebeharren ondorioz– ordaindu behar izan dituen gastu batzuk, mantentzeko unitateetan jarri beharreko ordezko piezak eta material suntsikorra barne.

3.4) PREZIOEN BERRIKUSPENA

Mantentze lanei dagozkien prezioak finkoak dira, berrikuspenik gabe. Bosgarren urtetik aurrera, eskulanaren kostuak bakarrik berrikusiko dira, *Gipuzkoako bide-garbiketa publikoa eta hiri-hondakin solidoen bilketa hitzarmen kolektiboan* ezarritako soldaten berrikuspenarekin bat.

Horrenbestez, bosgarren urtetik aurrera honako hauek berrikusiko dira: Mantentze zuzentzailean erabili beharreko eskulanaren prezioa; bi hilez behingo prebentziozko mantentzearen prezio unitarioa, lurpeko zulo bakoitzari dagokiona; eta lurpeko zulo bakoitzaren lau hilez behingo prebentziozko mantentzearen prezio unitarioa.

4) JARDUERA EREMUA - ERABERRITU BEHARREKO EDUKIONTZIEN ZERRENDA

Hornidura, instalazio eta mantentze lanak egiteko kontratu honen jarduketa eremuak barnean hartzen ditu Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean hiri hondakinak biltzeko jarri diren lurpeko 63 edukiontzi hauek:

MOTA	UDALERRIA	GUNEA	HELBIDEA	GOITIZENA	GUNE KOPURUA	EDUKIONTZI KOPURUA	ERREFUSA	PAPERA ETA KARTOIA	ONTZIAK	BEIRA
D	Ermua	2014	Probaleku, 1	Plaza España	1	3	2			1
D	Ermua	2024	Zubiaurre, 16	Karabixa	1	4	2	1	1	
D	Ermua	2082	San Pelayo, 44	Polideportivo, Monumento a la Paz	1	5	2	1	1	1
D	Eibar	3069	Urkizu, 7	Aranes- Zubi Gain	1	11	5	2	2	2
D	Eibar	3090	Toribio Etxeberria, 29		1	6	3	1	1	1
D	Eibar	3097	Bidebarrieta, 60		1	5	2	1	1	1
D	Eibar	3109	Errebal, 5		1	7	3	1	2	1
D	Elgoibar	5004	Antonio Arrillaga, 2		1	6	2	1	1	2
D	Elgoibar	5021	Pedro Miguel Urruzuno, 10	Udaberri	1	6	4	1	1	
D	Elgoibar	5022	Plaza Aita Agirre, 34	parada taxi	1	5	3	1	1	
D	Mutriku	8015	Eulogio Ulacia, 1	rotonda	1	5	2	1	1	1
				Guztira:	11	63	30	11	12	10

5) DERRIGORREZ BETE BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOAK

Lizitatzaileek eskaintza bakar bat aurkeztuko dute, baldintza teknikoen agiri honetan eta baldintza administratiboen agirian jasotako zehaztapenak betez. Beraz, lizitatzaileek eskaini behar duten prezioetan, baldintza-agiri honen 3. apartatuan aipatutakoetan, jarraian azaltzen diren aginduak hartuko dira aintzat:

5.1) HORNIDURA ETA MANTENTZEAREN BALDINTZA OROKORRAK

Kontratuaren xedearen barruan sartzen da, honako lan hauek daude: lehendik dauden instalazioak desmuntatzea; mantendu behar diren elementuak garbitu, kontserbatu eta tratatzea, birjarri behar den obra zibila barne; multzo berriak hornitu eta muntatzea, probak egitea, instalazioak prest jartzea eta bermeak ematea. Halaber, adjudikaziodunaren betebeharrek barnean hartzen dute kontratuari loturiko baliabide materialak eta giza baliabideak jartzea, baita kontratua betetzeko beharrezkoak diren gastu guztiak egitea ere.

Hori dela eta, baldintza agiri honen 3.3 apartatuan aipatutako prezioek aintzat hartzen dituzte hurrengo apartatuko zehaztapenak (“EKIPAMENDUAREN BALDINTZAK”, honako jarduketa hauek barne:

- Dauden lurpeko edukiontzien tapak eta buzoiak desmuntatzea eta kentzea.
- Dauden tapak desmuntatu eta kentzea.
- Dauden altxatze sistemak desmuntatu eta kentzea.
- Dauden banaketa elektrikoko ekipamenduak (kontrolatu eta eragitekoak), ponpak eta multzo oleohidraulikoak desmuntatu eta kentzea.
- Dagoen obra zibilaren zuloguneak garbitu eta egokitzeko lanak.
- Tapen markoak begiratu, konpondu, garbitu eta margotzea, kontserbatu nahi badira, baita horri loturiko obra zibil txikia egitea ere.
- Errefusaren, paper-kartoiaren eta ontzien bilketarako instalatu behar diren altxatze sistemak hornitu eta instalatzea, dagozkion sistema elektrikoak, oleohidraulikoak eta ponpaketa sistemak barne.
- Garabi bidez igotzen diren beira biltzeko multzoen hornidura eta instalazioa.
- Ponpaketa ekipamendu osoen eta elementu osagarrien eraberritzea.
- Tapa eta buzoi berriak jartzea, baita zigilatzea ere.
- Tapa berrien gaineko zoladura konpondu eta azkena ematea.
- Instalazioa probatzea eta martxan jartzea.

Lizitatzaileek Mankomunitatean dauden lurpeko edukiontzi guztien kokapenak begiratzeko eskubidea izango dute, eta mantendu beharreko elementuen egoera ona dela ziurtatuko dute; batez ere markoak eta zuloguneen oraingo neurriak aztertuko dituzte, multzo berriak neurri horietara egokitu beharko baitzaizkie; bestela, neurriak aldatu ahal izango dituzte, multzo berrietara egokitzeko. Adjudikaziodunak ez du eskubiderik izango elementu horien egoera eta neurriak direla eta erreklamazioak aurkezteko, eta eskainitako produktuek baldintza guztiak –ezarritakoak zein horrelako hornidura eta instalazioei loturikoak–

betetzen dituztela ulertuko du Mankomunitateak. Ondorio horietarako, eskaintza prestatzeko, Mankomunitateak, interesdunek hala eskatzen badute, bisita gidatu bat antolatu ahal izango du, eskatzen diren kokapen guztiak edo batzuk ikusteko.

Adjudikaziodunak (instalatzeari ekin aurretik) lurpeko edukiontzien gune bakoitzaren instalazioa zehazten duen proiektu bat prestatuko du. Proiektuak barnean hartuko ditu, gutxienez, egin beharreko instalazioei buruzko azalpen txostena eta planoak; halaber, multzoen deskribapenak honako hauek aipatuko ditu, gutxienez:

Multzoen elementuak
Altxatzeko gailuak
Multzoen kokapena
Sistema hidraulikoa
Sistema elektrikoa eta babes elektrikoak
Drainatze sistema
Segurtasun sistemak
Beharrezkoa izanez gero, egingo den obra zibila.

Lurpeko edukiontziak instalatzen hasi aurretik, proiektuaren kopia Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari aurkeztuko zaio. Proiektuaren kostua baldintza agiri honen 3.3 apartatuan deskribatutako prezioen barnean dago, eta adjudikaziodunak ez du eskubiderik proiektua idatzi behar izatearen inguruko erreklamazioak aurkezteko.

Adjudikazioduna izango da material bilketaren eta lanak hornitzaile eta fabrikatzaileekin koordinatzearen arduradun, beraz, zorrotz bete beharko dira dagokion hornikuntza planean ezarritako epeak; aipatu plana proiektuko txostenari erantsiko zaio.

Adjudikaziodunaren ardura izango da instalazioa zuzen eta legezko moduan martxan jartzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea, eta Mankomunitateari laguntza eskatu ahal izango dio, birjarpenak egin ahal izateko.

Era berean, adjudikazioduna arduratuko da segurtasun eta osasunari buruzko araudia betetzeaz agindutako lan guztietan, hau da, prozesu osoan zehar, instalazioa martxan jarri arte. Hori dela eta, segurtasun eta osasun arloko indarreko arau guztiak bete beharko ditu, baita, obra zibil bat egin behar izanez gero, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua ere, eraikuntza obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena. Hain zuzen ere, honako hauek beteko ditu (zerrenda ez osoa):

- 31/1995 LEGEA, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta hura garatzeko araudia.
- 39/1997 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen araudia onartzen duena.
- 54/2003 LEGEA, abenduaren 12koa, laneko arriskuei aurrea hartzeko arauen erreformari buruzkoa.
- 171/2004 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko Legearen 24. artikulua garatzen duena, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez.

EKIPAMENDUAREN BALDINTZAK

a) Obra zibila:

Hornidurak barnean hartuko du zuloguneak egokitzea, zulogune osoak garbitzea eta –beharrezkoa izanez gero– iragazgaiztea, baita behar diren kanalizazio obrak egitea ere, makineria aldatzea eskatzen duten zuloguneetan sartzen den ura hurbileneko saneamendu sarera bideratzeko eta zulogunea sare horrekin lotzeko.

Eragindako bide-zoruak berregiteko, kasu guztietan, hormigoiz beteko dira eta lehenagoko zoladura berriz jarriko da. Horrelako obren kalitatea eta gainbegiraketa onartutako udalerrietako bidezaintza zerbitzuek onetsi beharko dituzte; halaber, lizitatzaileek zorrotz bete beharko dituzte aipatu zerbitzuek ezar ditzaketen arau edo baldintzak, hala badagokio, eta ez dute izango horren inguruko erreklamazioak aurkezteko eskubiderik.

Multzo guztiak ahalik eta ondoen egokitu behar dira dauden zuloguneetara, eta saihestuko da zuloguneetan aldaketa nabarmenak eskatzen dituzten obra zibilak egitea, instalatzen diren multzoak zuloguneen neurrietara egokituz. Edonola ere, zuloguneen aldaketa guztiak, beharrezkotzat jotzen direnak, lizitatzaile bakoitzak eskaintzen dituen prezioetan sartuta daudela ulertuko da, ondorio guztietarako, baldintza-agiri honen 3.3 apartatuan azaldutako prezioen arabera.

b) Tapa markoak

Adjudikaziodunak marko berriak jarri ahal izango ditu, edo bestela, lehengoak erabili. Bigarren kasuan, adjudikaziodunaren betebeharra izango da marko horiek saneatzea, eta, horretarako, salbuespenik gabe, korrosioaren aurkako babes geruza berria egin beharko du, gatz-lainoaren probaren bidez C5H babes maila bermatzen duena. Horretarako, gutxienez, honako hau egingo du:

- Arrabotaketa eta lixatze mekanikoa
- Oxidoaren katalizatzea
- Zinkean oinarritutako 2 osagaiko epoxi pintura aplikatzea.

Mankomunitatearen iritziz markoetako bat aldatu behar bada, aldaketa, obra zibila barne, eskaintzen diren prezioetan sartuta dagoela ulertuko da, lizitatzaileek instalazioen egoera ezagutzen dutela ulertzen delako.

c) Ixteko tapa.

Ixteko tapak hermetikoak eta eraisgarriak izango dira (giltzadura bidez), beira biltzeko edukiontzietan izan ezik, eta honako baldintza hauek beteko dituzte, gutxienez:

- Tapa kontserbatutako markoari edo marko berriari lotuta egongo da, erresistentzia handiko banden bidez, taparen funtzionamendu zuzena bermatzeko; hori, besodun kamioiarekin jasotzeko moduko lurpeko multzoetan izan ezik.
- Taparen eta markoaren arteko estankotasuna ziurtatuko da, perimetroko juntura torikoa instalatuz. Tapa –bere perimetroan– markoaren juntura torikoaren gainean jarriko da, eta plano inklinatuan amaituko da, maila edo arkitektura-oztopoak ez sortzeko.
- Multzoek eskailera mailak edo arkitektura-oztopoak egin gabe zoladuraren mailan jartzeko moduko tapa izango dute.
- Multzoaren tapak gutxienez 5kN/m2-ko karga jasan beharko du, trafikoaren ondorioz edo beste kausa baten ondorioz sortzen diren kargei egonkortasunez eusten diela bermatzeko.
- Taparen gainaldea gutxienez 3 mm-ko lodiera duen eta zink-bainu beroan murgilduz galvanizatu den xafla malkodunez eginda egongo da, eta ez labaintzeko tratamendua egingo zaio. Neurri osagarri moduan, lizitatzaileek erretxinazko akabera duten tapak proposa ditzakete.

  Tapen akaberak segurtasun mailarik handiena bermatuko du kontratuaren iraunaldi osoan; era berean, tapa irristagaitza izango da kontratuak iraun bitartean, hain zuzen, R-11 (DIN 51130 arauaren arabera), 3. klasea (UNE ENV 12633 arauaren arabera) edo PTV>36 (UNE-EN 13036-4:2012 arauaren arabera) baino irristagaiztasun maila handiagoa izango du, kontratuaren iraunaldi osoan.

  Akabera xafla malkodunezkoa bada, prebentziozko mantentzeak barnean hartuko du irristagaitza izatea bermatzen duen tratamendua gutxienez urtean behin egitea. Lizitatzaileak erretxinazko akabera edo antzeko material batekoa eskaintzen badu, prebentziozko mantentzeak barnean hartuko du gutxienez urtean behin garbitzea, mantentzea eta/edo eraberritzea. Lan horien kostua eskaintzen diren prezioetan sartuko da, beraz, ez zaie gehituko kontratuko prezioei.

- Euri urak hustea ahalbidetzearren, gaineko marko bat jarriko da, perimetriko leiho isurki bat egiteko.

d) Buzoiak.

Buzoia herritarrek lurgainean ikus dezaketen elementua da, hondakinak lurpeko edukiontzira sartzeko erabiltzen dutena:

- Buzoia multzoaren tapan muntatu beharko da, zoruaren mailan jartzea ahalbidetzen duten euskarrien bidez.
- Alboko kargako multzoaren buzoia tapan sartzeko zuloak gutxieneko neurriak izan beharko ditu, lortzen den azalera hauxe izan dadin: 400 mm x 670 mm. Buzoiaren altuera –zoladuratik– ezin da 1.000 mm baino handiagoa izan.
- Multzoaren buzoiak perimetroko juntura bat izango du, molde bidez pieza bakar gisa egindakoa, taparen iragazgaiztasuna bermatzeko; sekzioari dagokionez, albo bakoitzean gutxienez 30 mm izango du.

- Egituraren kalitatea Mankomunitateko ingurunearekiko erresistentzia bermatzeko, multzo guztietako buzoiak gutxienez 2 mm-ko lodiera duen AISI 304 altzairu herdoilgaitzez egingo dira. Akabera herdoilgaitza edo margotua izan daiteke.
- Buzoiak danbor birakariaren bidez irekiko dira; danborrak gutxienez 70 litroko edukiera izango du, eta gutxienez 600 mm (luzera) x 390 mm (altuera) duen aho bat, hondakinak sartzeko.
- Buzoia irekitzeko eskulekua bandalismo aurkakoa eta atermikoa izango da (ez da berotzen eguzkitan). Blokeo sistema bat izan behar du, buzoia itxi eta berriz irekitzea eragozteko.
- Buzoia automatikoki itxiko da –grabitatez–, eta ixtean kolpeak eta zarata saihesteko sistema bat izango du.
- Buzoi guztiek hondakin mota identifikatzea ahalbidetzen duen identifikazio-plaka edo bereizgarri bat izango dute jarrita, baita Mankomunitatearen anagrama ere.
- Tamaina handiko merkataritza hondakinak botatzeko ate bat egongo da, baimendutako erabiltzaileek segurtasun giltzarekin irekitzeko. Diseinuari esker, giltza ezin da sarrailatik atera, buzoiaren atea erabat itxita ez badago. Horrela saihesten dira atea irekita utziz gero gerta daitezkeen istripuak.

e) Albotik kargatzeko edukiontziak altxatzeko multzoak (errefusaren, paper eta kartoiaren, eta ontzien bilketa).

- Instalatuko diren multzoek automatikoki mugitzeko aukera izan behar dute, kamioitik, urrutiko kontrolaren bidez, alboko kargako edukiontzi bat altxatzean eta jaistean, eta beso biltzailea mugitzeko eremua libre utziko da, edukiontzia erabat husteko mugimendu oso-osoa egiteko.
- Tapa mugitzeko, multzoa igotzearekin batera egin daiteke, bultzagailuen eta/edo gurpil multzoaren bidez. Bultzagailuak edo gurpil multzoa maila diferentziak gainditu behar direnean instalatuko dira, multzoa desnibela duen gune batean badago. Taparen eragingailua eta multzoaren plataforma igotzeko mekanismoa independenteak direnean, bai taparen eragingailua, bai multzoa igotzeko mekanismoa, desnibela dagoen guneetan maila desberdintasuna gainditzeko diseinatuko dira.
- Multzoek honako osagai hauek izango dituzte:

  Plataforma: Bertikalean mugitzen den mekanismo hedagarria, edukiontzia azalera ateratzen duena. Plataforma altxatu eta gero eta jaitsi eta gero egonkortu egingo da.

  Maila erregulagarria: edukiontziak gainean jartzeko xafla, plataformaren goiko markoaren gainean finkatuta. Inklinatzean erregula daiteke, kalearen aldapara egokitzeko eta zoladuraren mailan geratzeko.

  Xaflak gutxienez 3 mm-ko lodiera izango du, eta beroan galvanizatutako altzairuzkoa izango da. Leiho bandadun irekigarria izango du, zulogunera sartu ahal izateko, konponketak egin behar direnean edo zulogunea garbitu behar denean.

Bultzagailuak: espeka moduan dabiltzan elementu mekanikoak, tapa eta plataforma –biak batera– igotzen direnean. Bultzagailuaren formak mugimendu sinkronizatua eragiten du: tapa irekitzean plataforma igotzen da. Altuera eta inklinazioa doitu ahal izango da, kalearen zoladurara egokitzeko.

Bultzagailuak elementu bakar baten bidez maila berean jarri ahal izango dira; elementu horrek bultzagailuen doitze teleskopikoa egingo du.

- Zilindro hidraulikoen laneko presioa gehienez ere 200 bar izango da.
- Altxatzeko multzoaren plataformak lerrokagailuak izango ditu, edukiontzia lau alboetan lerrokatzeko, horrela saihesten baita matxurak sor ditzakeen toki batean kokatzea.
- Edukiontziaren atzealdean ibilbide amaierako babesgailu bat instalatuko da, kamioiko jasogailuaren mugimenduen aurrean babesteko; babesgailua graduatu ahal izango da, edukiontzi mota desberdinetara egokitzeko.
- Plataformaren eta zulogunearen hormen artean geratzen den tartea murriztu egingo da, eta positiboki baloratuko da hondakinak multzoaren barruan erortzea saihesten duten elementuak jartzea.
- Multzoak lokailuak, larakoak eta/edo eskuko segurtasun-barrak izango ditu, garbiketa eta mantentze lanak egiteko. Plataforma ustekabe mugitzea eta tapa ezustean itxi edo irekitzea saihesteko sistemak izango ditu, hortaz, tapa ezin izango da ustekabean itxi, ezta atzera erori ere.
- Multzoak segurtasun errotuluak, seinaleztapen akustiko eta argiak izango ditu, multzoa irekitzeko maniobran eta irekita dagoen bitartean inguruko toki guztietatik ikus daitezkeenak. Positiboki baloratuko da orduak bereizteko sistemadun ekipamendu akustikoak instalatzea.
- Multzoa neurri estandarreko alboko kargako edukiontzi bat kokatzeko modukoa izango da (edukiontziaren neurriak: 1.800 mm-ko zabalera, 1.400 mm-ko sakonera eta 1.550 mm-ko altuera edo 2.000 mm-ko zabalera, 1.500 mm-ko sakonera eta 1.350 mm-ko altuera), lerrokagailuek mugatutako eremuaren puntu guztietan.
- Igotze sistemaren karga ahalmena gutxienez 1.750 kg izango da, edukiontzi bateko.
- Instalatuko diren multzoek EE ziurtagiria izan behar dute.

f) Motor-kutxatila duten multzoak.

Multzo berrien motorra hornitu eta muntatzean honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Motor-kutxatilako tapa berria hornitu eta instalatuko da, estankotasun juntura duena. Positiboki baloratuko da irekitzen laguntzeko gas-zilindroak jartzea, gehienez ere 120 NW-ko esfortzuarekin.
- Kutxatilaren tapa ingurukoa bezalako zoladura motarekin bat datorren panel moduan jartzeko modukoa izango da.
- Zentral hidrauliko berria hornitu eta instalatuko da, behar besteko ahalmena duen motorrarekin: instalatutako potentzia 7,5 kw izango da, gehienez ere.
- ISO NG6 elektrobalbulak
- Gutxienez 25 litroko edukiera duen depositu hidraulikoa izango du.

- Gainera, panel elektrikoa izango du, honako elementu hauekin: segurtasuneko kommutagailu-etengailua, elikatze orokorraren konektorea, motorraren elikatzea konektatzeko konektorea, kaxa elektrikoen seinalea, hargune osagarriak eta antena-kablea (urrunetik kontrolatzeko).
- Beharrezkoa izanez gero, panelak abiagailu elektronikoa izango du, abiatzean gehieneko kontsumoa mugatzen duena.
- Kontrol armairuak fusibleak, babes elektrikoak eta motorraren babes termikoak izango ditu.
- Horrez gain, kontrol armairuan komunikazio ekipamendua egongo da, baita modema jartzeko tokia ere.
- Itxi eta irekitzeko maniobrak kamioitik egiteko irrati-frekuentziaren seinaleak hartzeko gailu bat egongo da, ziurtatutako homologazioa duena.

  Tapak irekitzeko sistemak irekitze prozesua segurtasunez egitea, hau da, urruneko kontrolagailuaren bidez eragiten denean bakarrik ireki ahal izatea bermatu behar du. Ezin da aukerarik egon beste pertsona batek, ustekabean, irrati-frekuentzietan, garajeko atean, segurtasun ekorketan eta abarretan interferentzia eginez, tapa irekitzeko mekanismoa abiarazteko eta tapa ireki edo ixteko.

  Tapak urruneko kontrolagailu horiekin bakarrik ireki ahal izango dira, eta modu ergonomikoan kamioitik, eta tapak banan-banan edo guztiak batera ireki eta ixteko aukera egon behar du.

  Urruneko kontrolagailuek metxero-kargagailua izango dute, kamioietan erabiltzeko modukoa, baita bateria-oina ere.
- Multzoen tutu malgu hidrauliko eta elektriko guzti-guztiak eta osorik eraberrituko dira.
- Motordun multzoen ezaugarriak kokapen bakoitzean dauden multzo kopuruaren eta motaren arabera egokituko dira.

g) Ura ateratzeko ekipamenduak.

- Zuloguneetan sartzen den ura ateratzeko ponpaketa sistema honako hauek osatuko dute: Korrosioaren aurkako materialez egindako ponpa elektrikoa, noranzko bakarreko balbula, ponparen motorra babesteko babes terminoa eta konexio automatikoko flotagailuaren bidezko maniobra-sistema. Uraren maila 10-15 mm-ko altuerara iristean abiaraziko da sistema.
- Infiltrazio urak hurbileneko saneamendu sarera bideratzeko lana adjudikaziodunaren betebeharra denez, behar izanez gero, materialak (hoditeria, balbulak eta abar) hornitu eta muntatzea ere egin beharko da; halaber, zuloen hondoan gera daitezkeen lixibiatuak eta ur zikinak biltzeko beharrezkoak diren obrak ere egin beharko dira, hori guztia, baldintza agiri honen “a) Obra zibila” artikuluan aipatutako baldintzetan.

h) Kako bikoitzeko edukiontzietarako multzoak (beiraren bilketa).

3 m3-ko edukiera duen beirazko hondakinak biltzeko depositua izatea da helburu nagusia. Lurpeko edukiontzia garabi sistemaren bidez altxatuko du Bilketa Zerbitzuak.

- Beira biltzeko lurpeko edukiontziak eraberritzeko instalatu behar den multzoa "elkartua" izango da, hau da, buzoiak, oinezkoentzako plataformak, edukiontziak eta altxatu eta ixteko sistemek multzo bat osatuko dute, maniobra bakar baten bidez eragiten dena. Kako bikoitzeko igoerakoa, mekaniko hutsa eta batere elektronikoa ez dena.
- Erorketen aurkako segurtasun-neurri moduan, edukiontzia multzotik aterata, segurtasun gailu batzuk instalatu beharko dira, adibidez, oholesi motakoa edo kontrapisu bidez eragiten den plataforma. Birbidaltze kableen kopuruari dagokionez, gutxienez 2 izango da, kontrapisuzkoak. Sistemari esker, multzoa ez da zerbitzutik kanpo geratuko, nahiz eta kableetako bat hausten bada ere.
- Edukiontzia sartzen denean, oholesia edo segurtasun plataforma bultzatu eta kontrapisuak altxatuko ditu; horrela, sistema tenkatuta geratuko da, eta edukiontzia ateratzeko maniobra egitean, oholesia edo plataforma segurtasun posiziora mugituko da.
- Instalatu behar den multzoak estankotasuna bermatuko du, eta zuloguneen oraingo neurrietara egokituko da.
- Multzoak eskailera mailak edo arkitektura-oztopoak egin gabe zoladuraren mailan jartzeko moduko plataforma bat izango du.
- Plataforma xafla malkartsuz egina egongo da, tratamendu ez-labaingarriarekin, gutxienez 3 mm-ko lodierarekin, zinkezko bainuan murgilduz berotan galbanizatuta. Neurri gehigarri gisa, lizitatzaileek erretxinazko akaberak dituzten azalak proposatu ahal izango dituzte. Azalen akaberak ahalik eta segurtasun handiena emango du kontratuak irauten duen bitartean, eta ez labaintzeko ezaugarriak mantenduko ditu, "C) Itxiera-tapa" atalean zehaztutako zehaztapenen arabera.
- Edukiontziaren edukiera gutxienez 3.000 litro izango da, eta buzoiaren eta danborraren edukiera ez dira aintzat hartuko.
- Edukiontzia xafla galvanizatuz edo aluminioz eginda izango da, eta kate edo kable karenatuen bidez eragiten diren 2 ate izango ditu beheko aldean, hondakinak zuzenean ukitzea saihesteko; kate edo kableak ere altzairu galvanizatuzkoak izango dira.
- Tapak eta edukiontziak osatzen duten multzoa igotzeko uztai biek upelaren zeharraga zentralean geratu behar dute, deposituaren ahoa ez estaltzeko, eta zeharraga hondakinaren pisuarekin indartu behar da.
- Uztaiek zirkularrak izan behar dute, 18 mm-koak, eta barne-diametroa 130 mm-koa izango da. Uztaien artean 110-120 mm-ko tartea utzi behar da kakoa errazago aldatzeko.
- Beheko deskarga-atakek altzairu herdoilgaitzezko kateak edo kablea izango dute, 12 mm-ko lodiera duena.
- Edukiontziko atakak irekitzeko angelua gutxienez 45º izango da.
- Lurpeko gunean dauden burdinazko elementu guztiek altzairu herdoilgaitzezkoak izan behar dute, herdoiltze prozesua et herdoila saihesteko; izan ere, kanpotik sartzen

den urak, baita –hondakinak uztearen ondorioz– lurpeko edukiontzian sortzen den hezetasunak ere, eragiten dute prozesu hori. Ildo horretan, metatzen diren urak (euri urak, ontzietatik isuritako likidoak, kondentsazioa eta abar) ateratzeko sistema egoki bat behar da, eta edukiontziak oinarria baino altuago egon behar du, edozein ur motak barruko upela ukitzea saihesteko.

- Postontziaren ahoa txikia izan behar da, azaleko iglu edukiontziaren antzeko diametroa izan behar du, eta kono formakoa, langa salbatzeko arrapala txiki bat duena, erdian jarrita, buxadurarik egon ez dadin.
- Edukiontziaren tapan matrikula-zenbakia jarri behar da, oxigeno bidez ebakita eta errematxatuta, edukiontzia identifikatu ahal izateko (kodea Ecovidrio-k emango du).
- Instalatuko diren multzoek EE ziurtagiria izan behar dute.
- Euskarri moduan toki bat utzi behar da, operadoreak uztaiak segurtasunez kroka ditzan. Euskarria xafla bat izango da, upelean jarrita eta espaloiaren aurrealdean oinarrituta, barra batekin indartua.
- Beira biltzeko edukiontzia hormigoizko zulogune bakar batean kokatu behar da, beste hondakin mota guztietatik bereizita; hori dela eta, irekidura bakarreko plataforma bat izango du, beste hondakinekin partekatzen ez duena.
- Lurpeko edukiontzien tapak eskuz irekitzen badira, material arinez eginda izango dira eta hidraulikoen egoerak behar bezalakoa izan behar du beti (mantentze lan horiek derrigorrezkoak dira sistema guztietan); bestela, eskuz altxatzeak lan arriskua sor diezaioke hondakinak biltzen dituen langileari, dagokion mantentzea egin ezean. Gauzak horrela, gainean ezin da beste edukiontzi mota bat jarri, adibidez, pilak biltzekoa, asko metatuz gero nabarmen areagotuko baita taparen pisua, eta ondorioz, handiagoa izango da egin beharreko ahalegina (operadore bakar batek nekez irekiko du tapa). Era berean, giltzaz ixteko sarraila behin eta berriro ireki arren hausten ez den materialez eginda izango da, ireki ezin izatea saihesteko.
- Oinezkoen segurtasunerako, edukiontziak deskarga egitean uzten duen hutsunea estaltzen duen igogailu bat izan behar du, edota tapak barra batzuk izango ditu, besoen moduan jarrita, erorketak saihesteko.

i) Muntatzeko oinarrizko segida

<u>Alboko kargako edukiontziak husteko altxatze multzoak</u>

Alboko kargako edukiontzi multzoa eraberritzeko, gutxienez, honako fase hauek jarraituko dira:

1) Tapa eta buzoia ateratzea eta hondakinak kudeatzea
2) Plataforma ateratzea eta hondakinak kudeatzea
3) Altxatze sistema ateratzea eta hondakinak kudeatzea
4) Geratzen diren elementu guztiak kentzea, zulogunea garbitu, saneatu eta iragazgaiztea, eta zulogunea egokitzea, beharrezkoa bada.
5) Markoa saneatzea (begiratu, konpondu, garbitu, tratamendua eman eta margotzea) edo marko berria instalatzea
6) Banda kaxak markoan soldatzea

7) Markoaren saneamendua eta tratamendua
8) Igotze multzoa, sistema hidraulikoak, elektrikoak eta ponpak zulogunean sartzea
9) Tapa instalatzea, bandak ainguratuz. Buzoiak instalatzea.
10) Gurpilen euskarrien luzera doitzea eta bultzagailuak altueran doitzea
11) Plataforma zulogunean zentratzea
12) Tenkagailu hidraulikoak lotzea
13) Tutu elektrikoak lotzea
14) Igotzeko lehenengo maniobra egitea, eta plataforma behin betiko zentratzea
15) Igotzeko ibilbide osoan dauden bultzagailuen eta gurpilen euskarriak egiaztatzea
16) Egitura zulogunean finkatzea, egokitzea eta inguruko espaloiaren araberako akabera ematea
17) Seinale optiko-akustikoak eta itxitako taparen sentsoreak probatzea
18) Instalazioaren amaierako egiaztapenak, ziurtapenerako entregatzea eta martxan jartzea.

Motor oleohidraulikoaren multzoa.

Multzo elektrohidraulikoa eraberritzeko, gutxienez, honako fase hauek jarraituko dira:

1) Kutxatilaren tapa osoa kentzea, eta dagoen markoa saneatzea edo berri bat jartzea
2) Multzo hidraulikoa eta armairu elektrikoa kentzea eta hondakinak kudeatzea
3) Kutxatila saneatzea eta iragazgaiztea, beharrezkoa izanez gero
4) Soldadura bidez markoaren gaineko berria instalatzea
5) Kutxatilaren tapa eta motelgailuen euskarriak instalatzea
6) Multzo hidrauliko berria sartzea
7) Tenkagailu hidraulikoak akoplatu eta instalatzea
8) Armairu elektrikoa sartzea
9) Ekipamenduekin komunikatzeko tutuak instalatzea
10) Kutxatilaren tapan irrati hargailua eta antena instalatzea
11) Kutxatilaren tapako zoladura egitea
12) Amaierako egiaztapenak egitea, ziurtapenerako entregatzea eta martxan jartzea.

Kako bikoitzeko multzoak, beiraren bilketarako:

Kako bikoitzeko multzoa instalatzeko prozesuan honako fase hauek jarraituko dira, gutxienez:

1) Tapa eta buzoia ateratzea eta hondakinak kudeatzea
2) Plataforma ateratzea eta hondakinak kudeatzea
3) Altxatze sistema ateratzea eta hondakinak kudeatzea
4) Geratzen diren elementu guztiak kentzea, zulogunea garbitu, saneatu eta iragazgaiztea, eta zulogunea egokitzea, beharrezkoa bada.

5) Markoa saneatzea (begiratu, konpondu, garbitu, tratamendua eman eta margotzea) edo marko berria instalatzea
6) Segurtasun plataformarako euskarria instalatzea
7) Estankotasun junturadun marko-gainekoa instalatzea eta egitura markoari soldatzea
8) Segurtasun plataformaren euskarria nibelatzea
9) Kontrapisuak gidatzeko profilak doitu eta nibelatzea, eta horiek ainguratzea
10) Plataforma sartzea eta maniobrako goiko puntuan ainguratzea, sarjentak edo eskorak erabiliz
11) Birbidaltze kableak poleetatik pasatzea
12) Kontrapisuak eta kableak akoplatzea
13) Plataformaren katigamendua kentzea, eta sistema igotzen eta jaisten saiatzea
14) Edukiontzia sartzea eta taparen maila eta multzoaren estankotasuna egiaztatzea
15) Egokitzea eta inguruko espaloiaren araberako akabera ematea
16) Ziurtapenerako entregatzea eta martxan jartzea.

j) Aplikatzekoa den araudia.

Hornituko diren multzoek segurtasun neurriak bete behar dituzte, erabili ahal izateko. Hori dela eta, Makinen 2006/42/EE Zuzentaraua beteko dute, baita indarrean dagoen legedia ere; horretarako, honako hauek aurkeztuko dira:

Adostasun adierazpena
CE marka
Erabilera eskuliburua euskaraz zein gaztelaniaz

<u>Alboko kargako edukiontziak husteko altxatze multzoak</u>

MAKINEI BURUZKO 2006/42/EE ZUZENTARAUA
BATERAGARRITASUN ELEKTROMAGNETIKOARI BURUZKO 2004/108/EE ZUZENTARAUA
MATERIAL ELEKTRIKOARI BURUZKO 2006/95/CE ZUZENTARAUA
INDUSTRIA SEGURTASUNARI BURUZKO 2000/14/CE ZUZENTARAUA
1513/2005 ERREGE DEKRETUA, INGURUMEN ZARATARI BURUZKOA
UNE-EN ISO 12100:2012. MAKINEN SEGURTASUNA. ARRISKUAREN EBALUAZIOA ETA ARRISKUA MURRIZTEA
UNE-EN 602004-1:2007. MAKINEN SEGURTASUNA. MAKINEN EKIPAMENDU ELEKTRIKOA
UNE-EN ISO 13850:2016 MAKINEN SEGURTASUNA. LARRIALDIKO BOTOIAREN FUNTZIOA
UNE-EN 1037:1996+A1:2008. MAKINEN SEGURTASUNA. EZGARAIKO ABIOA PREBENITZEA
UNE-EN ISO 4413:2011. TRANSMISIO HIDRAULIKOAK. SISTEMEK ETA OSAGAIEK BETE BEHAR DITUZTEN ARAU OROKORRAK ETA SEGURTASUN BALDINTZAK

UNE-EN 981:1997+A1:2008. MAKINEN SEGURTASUNA. ARRISKUAZ OHARTARAZTEKO ETA INFORMAZIOA EMATEKO ENTZUTEKO ETA IKUSTEKO SEINALEEN SISTEMAK

UNE-EN 614-1:2006+A1:2009. MAKINEN SEGURTASUNA. DISEINU ERGONOMIKOAREN PRINTZIPIOAK.

UNE-EN 206-1:2008. HORMIGOIA. ZEHAZTAPENAK, EZAUGARRIAK, EKOIZPENA ETA ADOSTASUNA

UNE-EN ISO 14120:2016. MAKINEN SEGURTASUNA. BABESLEKU FINKO ETA MUGIKORRAK DISEINATZE ETA ERAIKITZEA.

UNE-EN ISO 14119:2014. MAKINEN SEGURTASUNA. BABESLEKUEI LOTURIKO KATIGAMENDU GAILUAK. DISEINATU ETA HAUTATZEKO PRINTZIPIOAK.

UNE-EN ISO 3746:2011. AKUSTIKA

UNE-EN 1000-6-3:2007+A1:2012. BATERAGARRITASUN ELEKTROMAGNETIKOA (EMC). BIZITEGIKO, MERKATARITZAKO ETA INDUSTRIA ARINEKO EREMUETAKO EMISIOARI BURUZKO ARAU OROKORRA

UNE-EN 61000-6-1:2007. BATERAGARRITASUN ELEKTROMAGNETIKOA (EMC). BIZITEGIKO, MERKATARITZAKO ETA INDUSTRIA ARINEKO EREMUETAKO IMMUNITATEA

UNE-EN ISO 1461:2010. BEROAN GALVANIZATZEKO TRATAMENDUAREN BIDEZKO ESTALDURAK BURDINAZKO ETA ALTZAIRUZKO PIEZETAN. ZEHAZTAPENAK ETA SAIAKUNTZA METODOAK

UNE-EN ISO 2081:2010. METALEZKO ESTALDURAK ETA BESTELAKO ESTALDURA EZ-ORGANIKOAK. ZINKA DUTEN ESTALDURA ELEKTROLITIKOAK, BURDINAREN EDO ALTZAIRUAREN GAINEAN EGITEKO TRATAMENDU OSAGARRIEKIN

UNE-EN 10025-1:2006. EGITURA ALTZAIRUZKO PRODUKTUAK, BEROAN IJEZTUTAKOAK. HORNIDURAREN BALDINTZA TEKNIKO OROKORRAK

UNE-EN 10025-2:2006. EGITURA ALTZAIRUZKO PRODUKTUAK, BEROAN IJEZTUTAKOAK. ALEATU GABEKO EGITURA ALTZAIRUAK HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

UNE-EN 10210-1:2007. ERAIKUNTZARAKO PROFIL HUTSAK, BEROAN AMAITUTAKOAK ETA ALE XEHEKO ETA ALEATU GABEKO ALTZAIRUZKOAK. HORNIDURAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

UNE-EN 10210-2:2007. ERAIKUNTZARAKO PROFIL HUTSAK, BEROAN AMAITUTAKOAK ETA ALE XEHEKO ETA ALEATU GABEKO ALTZAIRUZKOAK. PERDOIAK, DIMENTSIOAK ETA SEKZIOAREN EZAUGARRIAK.

UNE-EN 10346:2015. BEROAN MURGILDUZ, MODU JARRAITUAN ESTALITAKO ALTZAIRUZKO PRODUKTU LAUAK. HORNIDURAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

UNE-EN ISO 13920:1997. SOLDAKETA. PERDOI OROKORRAK SOLDATUTAKO EGITURETAN.

UNE-EN ISO 5817:2014. SOLDAKETA. FUSIO BIDEZ SOLDATUTAKO LOTURAK, ALTZAIRU, NIKEL, TITANIO ETA BEREN ALEAZIOETAN. HUTSEGITEEN KALITATE MAILAK

EN ISO 9223:2012. METALEN ETA ALEAZIOEN KORROSIOA. ATMOSFEREN KORROSIBOTASUNA. SAILKAPENA, ZEHAZTAPENA ETA ZENBATESPENA.

ISO 14713-1:2011. BURDINAZKO ETA ALTZAIRUZKO EGITURAK KORROSIOTIK BABESTEKO GIDALERROAK ETA GOMENDIOAK. ZINKEZKO ESTALDURAK. 1. ATALA. DISEINUAREN PRINTZIPIO OROKORRAK ETA KORROSIOAREKIKO ERRESISTENTZIA

ISO 14713-2:2011. BURDINAZKO ETA ALTZAIRUZKO EGITURAK KORROSIOTIK BABESTEKO GIDALERROAK ETA GOMENDIOAK. ZINKEZKO ESTALDURAK. 2. ATALA: BEROKO GALVANIZAZIOA.

UNE-EN ISO 9227:2012. KORROSIO SAIAKUNTZAK ATMOSFERA ARTIFIZIALETAN. GATZ-LAINOAREN SAIAKUNTZAK

UNE-EN ISO 4628:2004. PINTURAK ETA BERNIZAK. ESTALDUREN DEGRADAZIOA EBALUATZEA. GEHIEN AGERTZEN DIREN AKATSEN INTENTSITATEA, KOPURUA ETA TAMAINA ZEHAZTEA

UNE-EN ISO 2808:2007. PINTURAK ETA BERNIZAK. GERUZAREN LODIERA ZEHAZTEA

UNE-EN ISO 6270-1:2002. PINTURAK ETA BERNIZAK. HEZETASUNAREKIKO ERRESISTENTZIA ZEHAZTEA. 1. ATALA: KONDENTSAZIO JARRAITUA

UNE-EN ISO 6270-2:2006. PINTURAK ETA BERNIZAK. HEZETASUNAREKIKO ERRESISTENTZIA ZEHAZTEA. 2. ATALA: PROBETAK UR KONDENTSAZIOA DUTEN ATMOSFERETAN UZTEAN DATZAN METODOA

DIN 51130: Testing of floor coverings - Determination of the anti-slip property - Workrooms and fields of activities with slip danger - Walking method - Ramp test

UNE ENV 12633: ZOLADURA LEUNDUETAN ETA LEUNDU GABEKOETAN IRRISTADURA/LERRADURAREKIKO ERRESISTENTZIAREN BALIOA ZEHAZTEKO METODOA

UNE-EN 13036-4: 2012 ERREPIDEETAKO ETA AIREPORTUETAKO AZALEREN EZAUGARRIAK. SAIAKUNTZA METODOAK. 4. ATALA: IRRISTADURA/LERRALDIAREKIKO ERRESISTENTZIA NEURTZEKO METODOA. PENDULUAREN SAIAKUNTZA.

<u>Kako bikoitzeko multzoak, beiraren bilketarako:</u>

UNE-EN_13071-1:2008/AC:2010. 5000 LITRORAINOKO EDUKIERAKO HONDAKIN EDUKIONTZI FINKOAK, GOITIK IGOTZEN ETA BEHETIK HUSTEN DIRENAK. BALDINTZA OROKORRAK

UNE-EN 13071-2:2008+A1:2013. 5000 LITRORAINOKO EDUKIERAKO HONDAKIN EDUKIONTZIAK, GOITIK IGOTZEN ETA BEHETIK HUSTEN DIRENAK. LURPEKO SISTEMAK ETA PARTZIALKI LURPERATUTAKO SISTEMAK: BALDINTZA OSAGARRIAK

UNE-EN 13071-3:2012. 5000 LITRORAINOKO EDUKIERA DUTEN HONDAKIN EDUKIONTZIAK, GOITIK IGOTZEN ETA BEHETIK HUSTEN DIRENAK. IGOTZEKO TARTEKO PIEZA GOMENDATUAK

MAKINEI BURUZKO 2006/42/CE ZUZENTARAUA

INDUSTRIA SEGURTASUNARI BURUZKO 2000/14/CE ZUZENTARAUA

UNE-EN ISO 12100:2012. MAKINEN SEGURTASUNA. ARRISKUAREN EBALUAZIOA ETA ARRISKUA MURRIZTEA

UNE-EN 1037:1996+A1:2008. MAKINEN SEGURTASUNA. EZGARAIKO ABIOA PREBENITZEA

UNE-EN 981:1997+A1:2008. MAKINEN SEGURTASUNA. ARRISKUAZ OHARTARAZTEKO ETA INFORMAZIOA EMATEKO ENTZUTEKO ETA IKUSTEKO SEINALEEN SISTEMAK

UNE-EN 614-1:2006+A1: 2009 MAKINEN SEGURTASUNA. DISEINU ERGONOMIKOAREN PRINTZIPIOAK.

UNE-EN 206-1:2008. HORMIGOIA. ZEHAZTAPENAK, EZAUGARRIAK, EKOIZPENA ETA ADOSTASUNA

UNE-EN ISO 14120:2016. MAKINEN SEGURTASUNA. BABESLEKU FINKO ETA MUGIKORRAK DISEINATZE ETA ERAIKITZEA.

UNE-EN ISO 14119:2014. MAKINEN SEGURTASUNA. BABESLEKUEI LOTURIKO KATIGAMENDU GAILUAK. DISEINATU ETA HAUTATZEKO PRINTZIPIOAK.

UNE-EN ISO 3746:2011. AKUSTIKA

UNE-EN ISO 1461:2010. BEROAN GALVANIZATZEKO TRATAMENDUAREN BIDEZKO ESTALDURAK BURDINAZKO ETA ALTZAIRUZKO PIEZETAN. ZEHAZTAPENAK ETA SAIAKUNTZA METODOAK

UNE-EN 10025-1:2006. EGITURA ALTZAIRUZKO PRODUKTUAK, BEROAN IJEZTUTAKOAK. HORNIDURAREN BALDINTZA TEKNIKO OROKORRAK

UNE-EN 10025-2:2006. EGITURA ALTZAIRUZKO PRODUKTUAK, BEROAN IJEZTUTAKOAK. ALEATU GABEKO EGITURA ALTZAIRUAK HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

UNE-EN 10210-1:2007. ERAIKUNTZARAKO PROFIL HUTSAK, BEROAN AMAITUTAKOAK ETA ALE XEHEKO ETA ALEATU GABEKO ALTZAIRUZKOAK. HORNIDURAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

UNE-EN 10210-2:2007. ERAIKUNTZARAKO PROFIL HUTSAK, BEROAN AMAITUTAKOAK ETA ALE XEHEKO ETA ALEATU GABEKO ALTZAIRUZKOAK. PERDOIAK, DIMENTSIOAK ETA SEKZIOAREN EZAUGARRIAK.

UNE-EN 10346:2015. BEROAN MURGILDUZ, MODU JARRAITUAN ESTALITAKO ALTZAIRUZKO PRODUKTU LAUAK. HORNIDURAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

UNE-EN ISO 2081:2010. METALEZKO ESTALDURAK ETA BESTELAKO ESTALDURA EZ-ORGANIKOAK. ZINKA DUTEN ESTALDURA ELEKTROLITIKOAK, BURDINAREN EDO ALTZAIRUAREN GAINEAN EGITEKO TRATAMENDU OSAGARRIEKIN

UNE-EN ISO 13920:1997. SOLDAKETA. PERDOI OROKORRAK SOLDATUTAKO EGITURETAN.

UNE-EN ISO 5817:2014. SOLDAKETA. FUSIO BIDEZ SOLDATUTAKO LOTURAK, ALTZAIRU, NIKEL, TITANIO ETA BEREN ALEAZIOETAN. HUTSEGITEEN KALITATE MAILAK

EN ISO 9223:2012. METALEN ETA ALEAZIOEN KORROSIOA. ATMOSFEREN KORROSIBOTASUNA. SAILKAPENA, ZEHAZTAPENA ETA ZENBATESPENA.

ISO 14713-1:2011. BURDINAZKO ETA ALTZAIRUZKO EGITURAK KORROSIOTIK BABESTEKO GIDALERROAK ETA GOMENDIOAK. ZINKEZKO ESTALDURAK. 1. ATALA. DISEINUAREN PRINTZIPIO OROKORRAK ETA KORROSIOAREKIKO ERRESISTENTZIA

ISO 14713-2:2011. BURDINAZKO ETA ALTZAIRUZKO EGITURAK KORROSIOTIK BABESTEKO GIDALERROAK ETA GOMENDIOAK. ZINKEZKO ESTALDURAK. 2. ATALA: BEROKO GALVANIZAZIOA.

UNE-EN ISO 9227:2012. KORROSIO SAIAKUNTZAK ATMOSFERA ARTIFIZIALETAN. GATZ-LAINOAREN SAIAKUNTZAK

UNE-EN ISO 4628:2004. PINTURAK ETA BERNIZAK. ESTALDUREN DEGRADAZIOA EBALUATZEA. GEHIEN AGERTZEN DIREN AKATSEN INTENTSITATEA, KOPURUA ETA TAMAINA ZEHAZTEA

UNE-EN ISO 2808:2007. PINTURAK ETA BERNIZAK. GERUZAREN LODIERA ZEHAZTEA

UNE-EN ISO 6270-1:2002 PINTURAK ETA BERNIZAK. HEZETASUNAREKIKO ERRESISTENTZIA ZEHAZTEA. 1. ATALA: KONDENTSAZIO JARRAITUA

UNE-EN ISO 6270-2:2006. PINTURAK ETA BERNIZAK. HEZETASUNAREKIKO ERRESISTENTZIA ZEHAZTEA. 2. ATALA: PROBETAK UR KONDENTSAZIOA DUTEN ATMOSFERETAN UZTEAN DATZAN METODOA

DIN 51130: Testing of floor coverings - Determination of the anti-slip property - Workrooms and fields of activities with slip danger - Walking method - Ramp test

UNE ENV 12633: ZOLADURA LEUNDUETAN ETA LEUNDU GABEKOETAN IRRISTADURA/LERRADURAREKIKO ERRESISTENTZIAREN BALIOA ZEHAZTEKO METODOA

UNE-EN 13036-4: 2012 ERREPIDEETAKO ETA AIREPORTUETAKO AZALEREN EZAUGARRIAK. SAIAKUNTZA METODOAK. 4. ATALA: IRRISTADURA/LERRALDIAREKIKO ERRESISTENTZIA NEURTZEKO METODOA. PENDULUAREN SAIAKUNTZA.

Irrati-frekuentziako multzoak

Irrati-frekuentziako multzoek homologatuak izan behar dute, eta honako arau hauen araberako ziurtagiriak izan:

UNE-EN 301 489-1. BATERAGARRITASUN ELEKTROMAGNETIKOAREN SAIAKUNTZAK

UNE-EN 301 489-3. BATERAGARRITASUN ELEKTROMAGNETIKOAREN SAIAKUNTZAK

UNE-EN 300 220-1. BATERAGARRITASUN ELEKTROMAGNETIKOAREN SAIAKUNTZAK

UNE-EN 300 220-3. BATERAGARRITASUN ELEKTROMAGNETIKOAREN SAIAKUNTZAK

Erreferentziako hornidura eskaintzen duten lizitatzaileek modu sinesgarrian frogatu beharko dute eskaintzen dituzten ekipamenduek betetzen dituztela aipatutako arauak. Araudia batere edo neurri batean betetzen ez bada, aurkeztutako eskaintza atzera bota ahal izango du Mankomunitateak.

Froga modura, lizitatzaileek, eskaintzarekin batera, arauen kopia aurkeztu beharko dute (zerrenda pertsonalizatua, enpresaren izena adierazita), baita arau horiek betetzea egiaztatzen duten ziurtagiriak ere.

k) Saiakuntza protokoloa.

Hornitutako multzoen harrera egitearen ondorioetarako soilik, multzoek, instalatu ondoren, jarraian azaltzen den saiakuntza protokoloa bete beharko dute, aipatzen den elementu bakoitzeko:

Alboko kargako edukiontziak husteko altxatze multzoak

1) Oinezkoentzako plataformaren gainean, ausaz hautatutako toki desberdinetan, 500 kg-ko pisu bat jarriko da, 200 mm-ko diametroko oinarri zirkularra duena; puntu bakoitzean 10 minutu (gutxienez) iraungo du saioak.
2) Taparen iragazgaiztasuna probatzeko, taparen inguru perimetrikoan ura botako da, gutxienez 25 litro minutuko, eta gutxienez 3 minutuko estankotasuna duela egiaztatuko da.
3) Multzoaren plataforman gutxienez 3 tonako karga jarriko da, erdigunean, edukiontziak hartuko duen azalera osoan, eta karga igotzeko eta jaisteko maniobra osoa 5 aldiz burutu beharko da, gorabeherarik gabe.
4) Multzoaren plataforman gutxienez 1000 kg-ko karga bana jarriko da plataformaren albo bakoitzean, eta igo eta jaisteko maniobra osoa 5 aldiz burutuko da, gorabeherarik gabe; bitartean, igotze sistemak plataformaren abiapuntuko mailaren gainean (kargarik gabe) % 5 baino desnibel handiagoa sortzen ez duela egiaztatuko da.
5) Tapa 90 gradutan irekita eta plataforma puntu gorenera igota, tapa hainbat tokitan bultzatuko da gutxienez 200 kg-ko karga erabiliz; multzoan arazorik ez dagoela egiaztatuko da.
6) Plataforma goian, jaisteko zirkuitu hidraulikoa hautsi egingo da, emari librekoa, segurtasun balbulak (jausgailuak) martxan jartzeko; balbulen funtzionamendua egokia den ala ez egiaztatuko da.
7) Segurtasun lokailuak jarrita, jaisteko zirkuitu hidraulikoa irekiko da, eta plataformak erabat blokeatuta geratu beharko da; desblokeatzeko modu bakarra igotzeko maniobra egitea dela egiaztatuko da.
   Lokailuek plataformaren eta bertan jarritako 3 tonako kargaren pisua jasateko ahalmena izan behar dute.

Sistema oleohidraulikoa:

1) Motorrak gehieneko presioko lan erregimen orokorrean zenbat kontsumitzen duen neurtuko da, eta abiarazitako lan erregimenean faseko 16,25 ampere gainditzen ez duela egiaztatuko da, abio puntuak alde batera utzita.
2) Multzoaren gehieneko presioa begiratuko da. Horretarako, igotzeko maniobra bat egingo da, eta multzoa presio handienera iritsi arte mantenduko da aktibo; gehieneko presioa lortzen ez bada, multzoak ez du balio.

Ura ateratzeko ponpen sistema:

1) Gutxienez 500 litro ur sartuko da zulogunean, ura ateratzeko elektroponpa abian jartzeko, eta absortzio handiena lortu arte utziko da; geratzen den ur putzua ezin izango da 4 mm baino altuagoa izan ponpa dagoen eremuan.

Kako bikoitzeko multzoak, beiraren bilketarako:

1) Oinezkoentzako plataformaren gainean, ausaz hautatutako toki desberdinetan, 500 kg-ko pisu bat jarriko da, 200 mm-ko diametroko oinarri zirkularra duena. Puntu bakoitzean 10 minutu (gutxienez) iraungo du saioak, eta ezin dira agertu deformazioak, mugimenduak edo bestelako arazoak, plataformaren funtzionamendu normala oztopatzen dutenak.
2) Taparen iragazgaiztasuna probatzeko, taparen inguru perimetrikoan ura botako da, gutxienez 25 litro minutuko, eta gutxienez hiru minutuko estankotasuna duela egiaztatuko da.
3) Edukiontzian materialaren gutxienez 1.200 kg (0,4 kg/litro) sartuko da, eta multzoa igotzean eta deskargatzean nola funtzionatzen duen egiaztatuko da; bide batez, maniobrak egiteko kakoen irmotasuna egiaztatuko da.
4) Edukiontziaren barruko kolpeekiko erresistentzia probatuko da, altzairuzko 1 kg-ko eta gutxienez 80 mm-ko diametroko bola bat erabiliz. Hutsik dagoen edukiontziari hainbat kolpe emango zaio, bola 500 mm-ko luzera duen eta buzoiaren isurtze kotaren gainetik 100 mm-tara kokatuta dagoen arrapalatik botata; edukiontziaren edozein tokitan ezin dira agertu edukiontzia baliorik gabe uzten duten deformazioak.
5) Multzoaren erresistentzia orokorra egiaztatze aldera, edukiontzi osoari 20 cm-ko altueratik erortzen utziko zaio, zoruarekiko guztiz horizontala den posizioan; 30 aldiz errepikatuko da, edukiontziak funtzionatzen jarraitzen duela egiaztatuz.
6) Edukiontzian 60 litro ur botako da, eta beheko ateen euste maila ez dela gainditzen egiaztatuko da.
7) Segurtasun plataforma:
    a) Segurtasun plataformaren puntu guztiek –plataforma bere goiko posizioan dagoenean– kotatik edo espaloiaren mailatik gehienez ere 210 mm-ko distantziara egon behar dute.
    b) Ausaz hautatutako 8 posiziotan (gutxienez), 150 kg eta 300 mm-ko oinarria duen karga bat jarriko da segurtasun plataforman. Plataforma –gehieneko kotarekin konparatuta– 150 mm baino gehiago ez dela jaitsi egiaztatuko da. Saioak gutxienez minutu bat iraungo du puntu bakoitzean.

Azaldutako saioak egin, komunikatu eta kudeatu ondoren, multzoak zerbitzurako **egokiak edo desegokiak** direla adieraziko da.

Konpon daitezkeen arazoak dituzten multzoak, erabilezin geratu ez direnak, adjudikaziodunak bere kargura konpondu beharko ditu. Akatsa konponduta, arazoa eragin duen saioa berriz egin beharko da multzoarekin.

Egindako saiakera guztien ondoren, multzoak ezin du funtzionamendu zuzena eta jarraitua oztopatzen duen deformaziorik izan, eta jarritako sistemekin erabat integratzea bermatu behar da. Ildo horretan, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak desegokitzat joko ditu horrelako akatsak dituzten multzoak, izapide gehiagorik gabe, eta adjudikaziodunaren ardura izango da akastun multzoaren ordez beste bat jartzea, baita aldaketaren gastu guztiak ordaintzea ere. Multzo berriak saiakuntza protokolo berri osoa bete beharko du.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak beretzat gordetzen du kalitatea kontrolean espezializatua den eta aipatutako saioak egingo dituen enpresa bat kontratatzeko eskubidea. Hori dela eta, lizitatzaileek aurkeztuko duten hornidura eskaintzan kontuan hartu beharko dituzte kontrol horren kostuak.

l) Entrega baldintzak. Entrega epea.

Hornitutako multzoek, instalatu ondoren, egin eta bete beharko dute lehenago azaldutako saiakuntza protokoloa, aipatzen diren elementu guztietarako. Aipatutako saiakuntzak egin eta gainditu ondoren, multzoak egokitzat jotzen badira, multzo bakoitzaren harrera akta egingo da, eta orduan hasiko da berme epea, baita adjudikaziodunak egin behar dituen mantentze lanak egiteko epea ere.

Multzoak entregatzean, adjudikaziodunak benetan egindako instalazioa deskribatzen duen dokumentua eta lurpeko multzoen erabilera-eskuliburua emango ditu. Eskuliburuak honako informazio hau jasoko du gutxienez:

- Multzoen deskribapena
- Erabilera jarraibide orokorrak
- Multzoen funtzionamenduaren deskribapena
- Bilketa egiteko erabilera jarraibideak
- Mantentze lanak eta garbiketa egiteko erabilera jarraibideak
- Segurtasun arauak; Arreta neurriak, Bilketan sor daitezkeen arriskuak; Mantentze lanetan eta garbitzean sor daitezkeen arriskuak; Segurtasun neurriak.
- Segurtasun sistemen deskribapena
- Igotze sistemaren deskribapena
- Sistema hidraulikoaren deskribapena
- Sistema elektrikoaren deskribapena
- Ura ateratzeko sistemaren deskribapena
- Urruneko kontrol sistemaren deskribapena eta funtzionamendua
- Larrialdiak
- Bermea
- Plano deskribatzaileak: Multzoak, Makineria, Eskema elektrikoak eta Eskema hidraulikoak.

Aurkeztutako dokumentazioarekin batera, adjudikaziodunak prestakuntza emango die Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean bilketa zerbitzuan diharduten operadoreei (propioei zein kanpokoei). Prestakuntzak barnean hartuko ditu: multzoak erabiltzeko

jarraibideak, multzoen deskribapena, hartu behar diren prebentzio- eta segurtasun-neurriak.

Hornidura- eta instalazio-kontratuaren xedea osorik gauzatzeko burutzeko-epea 9 hilabetekoa izango da, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Hala ere, lizitatzaileek epe hori murriztu ahal izango dute beren eskaintzetan, jarduketa-programa aurkeztuz eta proposatutako epe-murrizketaren justifikazioa arrazoituz. (Gutun-azal edo artxibo elektronikoan, eskaintza ekonomikoarekin eta formulak aplikatuz ebaluatu daitekeen dokumentazioarekin batera).

5.2) MANTENTZEAREN BALDINTZA OROKORRAK

Eskaintzen den mantentze orohartzaileak honako zehaztapen tekniko eta derrigorrezko baldintza hauek bete behar ditu:

a) PREBENTZIOZKO MANTENTZEARI dagokion BALDINTZAK:

Lurpeko edukiontziak dauden gune bakoitzean, gunea osatzen duen lurpeko unitate bakoitzaren prebentziozko mantentzeak barnean hartuko du, gutxienez, honako puntu hauek egiaztatzea eta mantentze lana egitea, BI HILEAN BEHINGO, LAU HILEAN BEHINGO, SEI HILEAN BEHINGO edo URTEKO mantentzea den kontuan hartuta:

LURPEKO UNITATEA	EGIN BEHARREKO LANA	MAIZTASUNA
Ura ateratzeko ponpak	Ura ateratzeko ponpen funtzionamendua egiaztatzea	Bi hilean behin
Igotze plataforma eta multzoa	Egituraren azterketa: egoera eta kokapena	Lau hilean behin
	Plataformako xaflak aztertzea eta zuzentzea	Lau hilean behin
	Artikulazioak aztertzea ETA KOIPEZTATZEA	Lau hilean behin
Tapa eraisgarria	Abian jartzea Ireki eta ixteko mugimenduak begiratzea	Bi hilean behin
	Kontrolagailuen funtzionamendua egiaztatzea	Lau hilean behin
	Artikulazioak aztertzea ETA KOIPEZTATZEA	Lau hilean behin
	Taparen perimetroan dagoen gomazko juntura begiratzea	Bi hilean behin
	Azalera ez-labaingarria mantentzea	Urtean behin
Buzoia	Taparen ainguraketak ondo daudela egiaztatzea	Bi hilean behin
	Danborraren biraketa, zaratak eta erabat ixten dela (kontrapisua) egiaztatzea	Bi hilean behin
	Oinarriaren eta danborren junturak ondo daudela egiaztatzea	Lau hilean behin
	Hondakinak sartzeko tapak behar bezala daudela egiaztatzea	Lau hilean behin
	Anagramak eta pertsonalizatzeko elementuak ondo daudela egiaztatzea	Bi hilean behin

LURPEKO UNITATEA	EGIN BEHARREKO LANA	MAIZTASUNA
	Buzoiak eta perimetroko eremua garbitzea	Bi hilean behin
	Pintura eskualdi bat ematea: Azalera margotu aurretik lixatzea eta pistolaz pintatzea, azalera osoa homogeneizatzeko. Erabili beharreko koloreen RAL kodea Mankomunitateak emango du.	Bi hilean behin
Zirkuitu hidraulikoa	Zirkuitu hidraulikoaren, errakorren, tenkagailuen, tutuen eta abarren estankotasuna egiaztatzea	Sei hilean behin
	Deposituko olio maila egiaztatzea	Bi hilean behin
	Funtzionatzeko eskatzen diren presioak egiaztatzea	Lau hilean behin
	Multzo hidraulikoko olioa aldatzea	Urtean behin
	Olio hidraulikoaren egoera egiaztatzea	Lau hilean behin
Barrualdea	Beheko atakak nola ixten diren eta hermetikoak diren egiaztatzea	Sei hilean behin
	Gorputz nagusiak pitzadurak dituen egiaztatzea	Sei hilean behin
	Artikulazioak koipeztatzea	Sei hilean behin
Kaxa elektrikoa	Elektrobalbulen konektoreen egoera egiaztatzea	Sei hilean behin
	Armairu elektrikoko prentsen estankotasuna egiaztatzea	Sei hilean behin
	Armairuaren barruan dauden gailu elektrikoen egoera egiaztatzea	Sei hilean behin
	Dorretxoko kontrolagailuen funtzionamendua egiaztatzea	Sei hilean behin
	Dorretxoko taparen estankotasuna	Sei hilean behin
	Seinale akustikoen, argien eta maniobra seinaleztapenaren funtzionamendua	Bi hilean behin
Zulogunea	Gune guztietan, alboko kargako multzoak jartzeko zuloguneen barrua garbitzea, hondoan geratu diren edozein motatako hondakinak kenduz.	Bi hilean behin
	Kako bikoitzaren bidezko kargarako multzoak (beiraren bilketarako) jartzeko zuloguneen barrua garbitzea, hondoan geratu diren edozein motatako hondakinak kenduz.	Sei hilean behin

Lan gehienak egin beharra dakarren prebentziozko mantentzea, hau da, bi, lau, sei hilean eta urtean behingo berrikuspenak jasotzen dituena, kontratuaren indarraldiko lehenengo hilabetean egingo da derrigorrez.

Prebentziozko mantentzea 07:00etatik 14:00etara egingo da derrigorrez.

Derrigorrez bete beharreko baldintza gisa, enpresa lizitatzaileek lan egiteko modua eta prebentziozko mantentzea burutzeko plana deskribatzen duen txostena prestatuko dute. Txostenak honako hauek zehaztuko ditu: baliabide materialak (ezaugarriak barne), ibilgailuak, giza baliabideak eta prebentziozko mantentzeari esleitutako lantaldeak (lantaldearen osaera barne). Lurpeko edukiontzien mantentze lanak egiteko gaitasuna eta daukaten esperientzia adieraziko dute, zer motatako lurpeko edukiontzien mantentzea egin duten, baita haien markak ere. Halaber, prebentzio antolamenduaren modalitatea

adieraziko du, baita prebentzio lanak koordinatzeaz arduratuko den pertsonaren izena ere, 6. apartatuan ("Laneko segurtasuna eta osasuna") eskatzen den dokumentazio osoaz gain.

Gaixotasun edo istripuarengatik bajak, baimenak, sindikatu zereginak, oporrak bezalako egoeretan eta behar bezala justifikatuta dauden bestelako egoeretan, baita ustekabeko baja eta lanera ez agertzearen kasuetan ere, zerbitzua betetzea bermatu beharko du kontratistak. Kontratistak berehala estaliko ditu langileen absentzia edo baja horiek.

Lanak hasi aurretik, adjudikaziodunak egin beharreko lanetan egon daitezkeen arriskuen ebaluazioa egingo du, segurtasun arau guztiak kontuan hartuta eta beharrezko prebentzio neurriak ezarrita. Arriskuen ebaluazio horrek prebentzioaren eta laneko arriskuen arloetako araudi osoa bete beharko du. Ebaluazio txostena Mankomunitatearen laneko osasunaren departamentuan aurkeztuko da, eta mantentze lanak egingo dituzten langile guztiei helaraziko zaie.

Egindako prebentziozko mantentzearen berri egunero emango da, ikuskatutako lurpeko unitate bakoitzari buruz egindako laneko agiriaren bidez; agiri horiek Mankomunitateak eskatutako formatuan bidaliko dira. Laneko agiriek derrigorrez jasoko dituzte aztertutako zuloguneetan antzemandako akatsak, bai segurtasunari, bai funtzionamenduari eta estetikari dagokionez. Era berean, egindako lanari buruzko txostena osatu eta egingo da, zulo bakoitzean egindako lanaren berri izateko.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko langileek une guztietan jakin behar dute zer egiten ari den, prebentziozko mantentzeari dagokionez. Kontratistak Mankomunitatearekin erabat koordinatuta jardutea ziurtatu behar du; horretarako, behar diren bilera guztietan parte hartuko du, eta eskatzen zaizkion datu, informazio eta txosten guztiak emango ditu.

Adjudikaziodunak bere kabuz burutuko du prebentziozko mantentzea, Mankomunitateko baliabide materialak eta/edo giza baliabideak eskatu gabe.

Prebentziozko mantentzea, zulogunea: adjudikaziodunak egin behar duen arriskuen ebaluazioa ahaztu gabe, berariazko jardun protokoloa aurkeztu beharko da, zulogunean eskatzen den garbiketa egiteko. Mankomunitatearen prebentzio zerbitzuak protokoloa irakurri eta balioztatuko du. Prebentzioaren eta laneko arriskuen arloetako araudi guztiak bete beharko dira.

Ordezko piezek eta aldatu beharreko osagaiek originalak izan behar dute, edo originalek bezalako ezaugarriak izan behar dituzte.

b) <u>MANTENTZE ZUZENTZAILEARI dagokion BALDINTZAK:</u>

Lurpeko edukiontziak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea-BADESAk eskatzen duenean konponduko dira; konponketa egiteko beharra komunikatu eta hurrengo 24 orduetan (gehienez ere) erantzun beharko zaio eskaerari, eta abisua telefonoz edo posta elektronikoz bidali ahal izango da.

Adjudikaziodunak mantentze zuzentzailea lanegunetan, igandeetan eta jaiegunetan egitea bermatu beharko du.

Mantentze zuzentzailea 07:00etatik 14:00etara egingo da derrigorrez, eta gutxienez bi langileko lantalde bat esleituko zaio, lana astegun guztietan –igande eta jaiegunak barne– egitea bermatzeko.

Adjudikaziodunak bere kabuz burutuko du mantentze zuzentzailea, Mankomunitateko baliabide materialak eta/edo giza baliabideak eskatu gabe.

Derrigorrez bete beharreko baldintza gisa, enpresa lizitatzaileek lan egiteko modua eta prebentziozko mantentzea burutzeko plana deskribatzen duen txostena prestatuko dute. Txostenak honako hauek zehaztuko ditu: baliabide materialak (ezaugarriak barne), ibilgailuak, giza baliabideak eta prebentziozko mantentzeari esleitutako lantaldeak (lantaldearen osaera barne). Lurpeko edukiontzien mantentze lanak egiteko gaitasuna eta daukaten esperientzia adieraziko dute, zer motatako lurpeko edukiontzien mantentzea egin duten, baita haien markak ere. Halaber, prebentzio antolamenduaren modalitatea adieraziko du, baita prebentzio lanak koordinatzeaz arduratuko den pertsonaren izena ere, 6. apartatuan (“Laneko segurtasuna eta osasuna”) eskatzen den dokumentazio osoaz gain.

Gaixotasun edo istripuarengatik bajak, baimenak, sindikatu zereginak, oporrak bezalako egoeretan eta behar bezala justifikatuta dauden bestelako egoeretan, baita ustekabeko baja eta lanera ez agertzearen kasuetan ere, zerbitzua betetzea bermatu beharko du kontratistak. Kontratistak berehala estaliko ditu langileen absentzia edo baja horiek.

Lanak hasi aurretik, adjudikaziodunak egin beharreko lanetan egon daitezkeen arriskuen ebaluazioa egingo du, segurtasun arau guztiak kontuan hartuta eta beharrezko prebentzio neurriak ezarrita. Arriskuen ebaluazio horrek prebentzioaren eta laneko arriskuen arloetako araudi osoa bete beharko du. Ebaluazio txostena Mankomunitatearen laneko osasunaren departamentuan aurkeztuko da, eta mantentze lanak egingo dituzten langile guztiei helaraziko zaie.

Egindako mantentze zuzentzailearen berri egunero emango da (3.3. b apartatuko taulan jasotako kodifikatzeari jarraikiz), ikuskatutako lurpeko unitate bakoitzari buruz egindako laneko agiriaren bidez; agiri horiek Mankomunitateak eskatutako formatuan bidaliko dira. Laneko agiriek, lurpeko zulogunean egindako konponketa bakoitzeko, derrigorrez jasoko dituzte aztertutako zuloguneetan antzemandako akatsak, bai segurtasunari, bai funtzionamenduari eta estetikari dagokionez. Era berean, egindako lanari buruzko txostena osatu eta egingo da, zulo bakoitzean egindako lanaren berri izateko; erabilitako ordezko piezak aipatuko dira, konponketa egiten emandako denbora, baita edukiontzia konpondu bitartean gertatutako gorabehera guztiak ere.

Konponketa bati ekin aurretik, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko langileei jakinarazi beharko zaie zer egingo den, mantentzeari dagokionez. Kontratistak Mankomunitatearekin erabat koordinatuta jardutea ziurtatu behar du; horretarako, behar diren bilera guztietan parte hartuko du, eta eskatzen zaizkion datu, informazio eta txosten guztiak emango ditu.

Adjudikaziodunak era autonomoan burutuko du mantentze zuzentzailea, Mankomunitatearen eta BADESAren teknikariek eman dioten lan programa betez.

Ordezko piezek eta aldatu beharreko osagaiek originalak izan behar dute, edo originalek bezalako ezaugarriak izan behar dituzte.

Adjudikaziodunak bere gain hartzen du lurpeko unitateen funtzionamendu zuzena une guztietan bermatzeko ardura; horretarako, azaldutako mantentze lanez eta konponketez gain, lurpeko sistemen egoera zaintzeko behar den lana egin beharko du.

6) LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Adjudikaziodunak Lan Arriskuen Prebentzioaren Legean eta –laneko segurtasun eta osasunari dagokionez– indarrean dagoen gainerako legedian xedatutako betebehar guztiak bete beharko ditu eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatu beharreko gainerako legeria.

Ondorioz, adjudikaziodunaren betebeharra izango da:

- Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.
- Egin beharreko lanaren arriskuak ebaluatzea.
- Arrisku ebaluazioaren emaitzak oinarri hartuta, prebentzio ekintzak planifikatzea.
- Lanerako baliabideek langileek segurtasuna bermatzen dutela ziurtatzea.
- Langileek egin behar duten lanaren araberako babes neurriak ematea, arriskuak saihestu edo behar bezala mugatu ezin direnean.
- Langileei informazio egokia ematea, dauden arriskuak, aplikatu beharreko babes neurriak eta jokabideak eta ezarritako larrialdiko neurriak azalduz.
- Langile bakoitzak prebentzioaren arloko prestakuntza egokia jaso duela bermatzea.
- Langileen osasuna aldizka-aldizka kontrolatzen dela bermatzea.
- Jarduera horretarako prebentzio baliabide bat izendatzea.

Gainera, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko 171/2004 Errege Dekretua betez, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eta BADESAk eskatzen dioten dokumentazio osoa aurkeztuko du adjudikaziodunak, adjudikazioari buruzko jakinarazpena jaso ondoren eta kontratua sinatu aurretik.

Lizitatzaileek beren eskaintzetan aurreikusi beharko dituzte segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana –multzoak hornitu eta instalatzearen alde guztiak jasotzen dituena– egitearen kostuak. Segurtasun eta osasun arloan indarrean dagoen araudia zorrotz bete behar duen azterlana multzoak instalatzeko lanei ekin aurretik aurkeztu beharko du adjudikaziodunak.

Obra zibila egin behar denean, eta segurtasun eta osasunari buruzko azterlana aplikatuz, kontratista bakoitzak laneko segurtasun eta osasunerako plan bat prestatuko du, azterlanean jasotako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatzen dituena, obra gauzatzeko erabiliko duen sistema propioaren arabera (1627/1997 Errege Dekretuaren 7. artikulua).

Adjudikaziodunak obren segurtasunerako koordinatzailea izendatzea proposatuko du, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak onetsi eta izendatu dezan.

Lanak hasi aurretik, adjudikaziodunak egin beharreko lanetan egon daitezkeen arriskuen ebaluazioa egingo du, segurtasun arau guztiak kontuan hartuta eta beharrezko prebentzio neurriak ezarrita. Arriskuen ebaluazio horrek prebentzioaren eta laneko arriskuen arloetako araudi osoa bete beharko du. Ebaluazio txostena Mankomunitatearen laneko osasunaren departamentuan aurkeztuko da, eta mantentze lanak egingo dituzten langile guztiei helaraziko zaie.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eta BADESAk lurpeko multzoen mantentzeari buruz ezarri dituen lan jarraibideak jarraitu beharko ditu adjudikaziodunak. Jarduerari ekin aurretik bilera egingo da.

7) ENTREGA EPEA ETA LANA, KONTROLA ETA IKUSKAPENAK EGITEKO PLANA

Hornidura egiteko eta instalazioa burutzeko epea **9 hilabetekoa** izango da, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita. Hala ere, lizitatzaileek epe laburragoa eskain dezakete beren eskaintzetan. (3. *Gutun azalean edo fitxategi elektronikoan, eskaintza ekonomikoarekin eta formulen bidez ebaluatzeko dokumentazioarekin batera*)

Epearekin batera, lizitatzaileek Hornidura eta Instalazio Plana aurkeztuko dute, multzoen ekoizpena, hornidura eta muntaia aipatzen dituen kronograma jasotzen duena. Bertan zehaztuko da bide publikoa hartu behar den gehieneko denbora, gune bakoitzeko edukiontziak instalatzeko behar dena; ezin izango da **15 egun** baino luzeagoa izan. (*Kronograma eta bide publikoa hartzeko gehieneko denbora 3. gutun azalean edo fitxategi elektronikoan adieraziko da, eskaintza ekonomikoarekin eta formulen bidez ebaluatzeko dokumentazioarekin batera*)

KONTROLA ETA IKUSKATZEA: Lanak behar bezala egiten direla bermatzeko, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak Ingeniaritza Zerbitzuko langileen izenak emango dizkio adjudikaziodunari; pertsona horiek mankomunitatearen ordezkariak izango dira, kontrola eta ikuskapenak burutzeko orduan.

Hala ere, Mankomunitateak egokitzat jotzen dituen beste kontrol neurri batzuk ezar ditzake, adjudikaziodunaren kontratuko betebeharrak behar bezala betetzen direla zaintzeko.

Hilean behin, adjudikaziodunak egindako lan eta atazen berri eman beharko dio Mankomunitateari; horretarako, adjudikazioduna ordezkatzen duen teknikariak dagokion txostena aurkeztuko du, hornidura programak betetzeko maila eta aipatu beharreko edozein gorabehera garrantzitsu jasotzen dituena. Baldintza agiri honetan aipatutako betebeharrak ez-betetzearen ondoriozko gorabeherak edo istripuak adjudikaziodunaren zuzeneko erantzukizuna izango dira.

8) BERMEA

Nahitaezko betekizuna izango da gutxienez **bi urteko** bermea eskatzea, multzoen harrera egunetik hasten dena. Lizitatzaileek berme epe luzeago bat eskaini ahal izango dute eskaintzetan. (*Gutun azalean edo fitxategi elektronikoan, eskaintza ekonomikoarekin eta formulen bidez ebaluatzeko dokumentazioarekin batera*)

Hornidura eta instalazioa egiteko eskaintzen den bermeak honako hauek izango ditu barnean (gutxienez):

Berme orokorrak: Bermeak honako hauek konpontzeko behar diren piezak eta eskulanaren kostuak estaliko ditu:

Multzoan egon daitekeen edozein osagai akastun (materialaren akatsak, fabrikazio akatsak, muntatu bitartean sortutako akatsak).

Multzoaren kanpoaldeko edozein piezatan sortutako korrosioaren ondorioak (akabera edozein dela ere), piezan oxidazioaren edo korrosio mota baten ondorioz zuloa egin bada.

Oro har, adjudikaziodunak 2 urteko epean eman beharko du berme orokor hori, lizitatzaileak hornitutako multzo guztietan zuzenketak barnean hartzen dituena.

Berme teknologikoa: Nahitaezko 2 urteko bermea amaituta, lizitatzaileek hornitutako multzoen berme teknologikoa eskaintzeko aukera izango dute, osagarri moduan. Epe horretan, adjudikazioduna izango da hornitutako multzoen kalitatearen arduradun, eta, funtzionamenduaren ondorioz higatu behar ez duten arren, akatsak dituzten edo matxuratu diren unitate edo osagai guztiak ordeztu beharko ditu. Ondorio horietarako, lizitatzaileak bere eskaintzan erabileraren ondorioz higa daitezkeen osagaien zerrenda emango du; osagai horiek berme teknologikotik kanpo geratuko dira.

Administrazioak berme teknologikoa onetsi edo gaitzesteko eskubidea izango du, bermeak baldintza agirian ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu, aplikatzeko baldintzak direla eta, edo aipatu bermeari loturiko unitateak nahikoak ez direlako. Horrelakoetan, lizitatzaileak ez du kontzeptu horri buruzko erreklamaziorik aurkezteko eskubiderik izango.

Ez irristatzearen bermea: Taparen azalera baldintza agiri honen 5.1 apartatuan azaldutako baldintzetan mantenduko da (irristagaitza) kontratuaren indarraldi osoan.

Horniduraren behin betiko harrera multzoen berme orokorraren epea edo –eskaintzan agertu eta onartu bada– berme teknologikoaren epea amaituta egingo da.

Mantentze lanei dagokienez, nahitaez bete beharreko baldintza moduan, gutxieneko bermea ezartzen da mantentze zuzentzailearen baitan egiten den konponketari dagokionez. Urtebeteko prebentziozko mantentzearen kasuan, gutxieneko bermea ezartzen da, ordezten diren pieza edo elementuei dagokienez, baita konpondutako matxuraren osteko funtzionamenduari dagokionez ere.

9) LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Administrazio klausulen agirian eskatzen den dokumentazioarekin batera, lehiaketako parte hartzaileak honako dokumentazio hau derrigorrez aurkeztu beharko du:

9.1)FORMULEN BIDEZ EBALUATZEKO DOKUMENTAZIOA, 3. GUTUN-AZALEAN BAKARRIK SARTU BEHARREKOAK

Atal honi buruzko edozein informazio 3. gutun-azala ez den beste gutun-azal batean sartzen bada, eskaintza automatikoki baztertuko da.

"*Eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez ebaluatzeko dokumentazioa*" gutun azalean edo fitxategi elektronikoan, lizitatzaileek aurkeztuko dituzte:

1. ESKAINTZA EKONOMIKOA, Txosten Ekonomiko-finantzarioarekin koherentea izan behar duena; eskaintzak honako hauek aipatuko ditu:
   PROPOSAMEN EKONOMIKOA.
   LIZITAZIOKO PREZIO UNITARIOAK, baldintza agiri honen 3.3 apartatuan deskribatutakoak.
   ORDEZKO PIEZEN PREZIOAK, baldintza agiri honen 3.3 apartatuan erabilitako kodifikazioa adierazita.
   TXOSTEN EKONOMIKO-FINANTZARIOA. Eskaintza ekonomikoarekin batera, lizitatzaileek Txosten Ekonomiko Finantzarioa aurkeztu beharko dute, baita dagozkion eranskinak ere, aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren bideragarritasuna, baita esleitutako baliabideen amortizazioa ere bermatzen eta azaltzen duena.
   Ez dira onartuko omisio, akats edo ezabaketak dituzten proposamen ekonomikoak, kontratazio-organoak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ikusi ezin badu.
2. KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK. Lizitatzaileek eskaintzan adieraziko dute:
   ENTREGA EPEA (hilabetetan), hau da, multzo guztiak hornitu eta erabat instalatzeko behar den denbora osoa, kontratua formalizatzen den unetik zenbatzen hasita.
   KRONOGRAMA BAT JASOTZEN DUEN LAN PLANA, non zehaztuko baita BIDE PUBLIKOA HARTZEKO BEHAR DEN GEHIENEKO DENBORA, edukiontzien gune bakoitzeko (bide publikoa hartzeko gehieneko denbora lanegunetan adierazita).
   Proposatutako epe-murrizketa arrazoitzen duen justifikazio-txostena, hala badagokio.
3. BERMEAREN IRAUPENA:
   HORNIDURAREN ETA INSTALAZIOAREN BERMEA: Berme orokorra + Berme teknologikoa.
   MANTENTZE LANETARAKO BERMEA.

9.2) 2. GUTUN-AZALEAN SARTU BEHARREKO BALIO JUDIZIOEN BIDEZ EBALUATZEKO DOKUMENTAZIOA - TXOSTEN TEKNIKOA

"*Balio judizio bidez baloratzeko dokumentazioa*" gutun azalean edo fitxategi elektronikoan, lizitatzaileek txosten teknikoa aurkeztuko dute. Txostenean, xehetasunez azalduko dute proposatzen dituzten hornidura eta mantentze lanak, eta aipatu eta laburbilduz azalduko dituzte honako hauek:

- Hornitu beharreko ekipamenduen deskribapena: Alboko kargarako edukiontziak altxatzeko multzoak; Kako bikoitzeko edukiontzietarako multzoak; Ixteko tapa; Buzoiak: Multzo hidraulikoak; Sistema elektrikoa eta babesak; Ura ateratzeko ekipamenduak; Segurtasun sistemak. Fitxa teknikoak eta gainerako dokumentazioa, proposatzen diren multzoak zuzen deskribatzeko.
- Egin nahi diren instalazio lanen deskribapena: Egingo den proiektuaren norainokoa, lehendik dauden elementuak desmuntatu eta kentzeko prozeduraren deskribapena, egin behar den obra zibilaren deskribapena, zuloguneen garbiketa eta egokitzapena, multzo, tapa eta buzoi berriak jartzea. Hargune elektrikoa eta drainatze sistema. Probak eta martxan jartzea.
- Multzoak hornitu eta instalatzeko erabili beharreko giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Multzoak instalatzean ezarri beharreko prebentzio plana.
- Lehendik dauden instalazioen egoera ezagutu eta onartzeko adierazpen ofiziala.
- Mantentze lanen norainokoari buruzko txostena: prebentziozko mantentzea eta mantentze zuzentzailea burutzeko modua eta plana deskribatuko du, honako hauek zehaztuta: baliabide materialak (ezaugarriak barne), ibilgailuak, giza baliabideak eta prebentziozko mantentzeari esleitutako lantaldeak (lantaldearen osaera barne). Giza baliabideei dagokienez, eskaintza aurkezteko unean, nahitaez erantsiko da eskaintzaileak zerbitzu horri esleituko dizkion langileen zerrenda (izen-abizenak). Laneko agiriaren eredua, lurpeko unitate bakoitzaren arabera.
- Prebentzioari dagokionez, Lan Arriskuen Prebentzioaren Legean eta laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legedian xedatutako betebehar guztiak betetzeko ezarrita duten modalitatea zehaztuko dute enpresa lizitatzaileek.
- Eskura daitezkeen ziurtagiriak; ISO 9001, ISO 14001, OSHAS (edukiz gero).

Lizitatzaileak ahalik eta modu argienean eta osatuenean aurkezten duen informazioa, bere proposamenak nahitaezko betekizunak eta baldintza baloragarriak betetzen dituela egiaztatzen duena.

<u>Formulen bidez ebaluatzen den ezaugarrietako bat ere ezin da agertu Txosten Teknikoan, hala nola:</u>

- **Eskaintza ekonomikoa eta prezioak.**
- **Kontratua gauzatzeko epeak.**
- **Bermeen iraupena.**

Goian aipatutako datuei dagokienez, ezin da datu kuantitatiborik aipatu, ezta aipatutako ezaugarriak ondorioztatzeko aukera eman dezakeen daturik edo bestelako informaziorik eman ere.

10) ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

10.1) Formula bat aplikatuz esleitzen diren puntuak emateko irizpideak (irizpide automatikoak). Gehienez ere 60 puntu, 3. GUTUN AZALA

10.1.1) Lurpeko edukiontzien 63 multzoren **hornidura eta instalazioari dagokion eskaintza ekonomikoa:** kontzeptu honetan, **gehienez ere 30 puntu** emango dira

Puntuak banatzeko formulan, "i" eskaintza bakoitzean baloratu beharreko eskaintza ekonomiko moduan, mota bakoitzeko multzo kopuru estimatua eta lizitatzaile bakoitzak multzoen hornidura eta instalazioa egiteagatik proposatzen duen prezioa (BEZa barne) biderkatuz eta biderkadura horiek batuz lortutako balioa hartuko da.

"i" eskaintza ekonomikoa = 43 x ALBOKO KARGAKO LURPEKO EDUKIONTZI BATERAKO MULTZOAREN 1. Prezio unitarioa
+ 5 x ALBOKO KARGAKO LURPEKO 2 EDUKIONTZIRENTZAKO MULTZOAREN 2. Prezio unitario
+ 10 x KAKO BIKOITZEKO LURPEKO EDUKIONTZI BATERAKO MULTZOAREN 3. Prezio unitario
+ 11 x KONTROL SISTEMA ELEKTROHIDRAULIKOAREN 4. Prezio unitario
+ 11 x DRAINATZE SISTEMAREN 5. Prezio unitario
+ 16 x KONTROLAGAILUAREN 6. Prezio unitario

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, interpolazio linealaren bidez eta onartutako horien arabera kalkulatuko dira, bi puntuek mugaturiko zuzenaren arabera: P1 (Gehieneko beherapena, gehieneko puntuazioa: 30 puntu) eta P2 (Zero beherapena, gutxieneko puntuazioa), eta puntu horiek zuzen horretan mugatzen duten tartearen barruan. Aipatutako puntuak hauek dira:

P1 – Eskaintza ekonomikoenari dagokiona (Gehieneko beherapena); gehieneko puntuazioa esleituko zaio (30 puntu).

P2 – Lurpeko 63 edukiontzi-ekipo hornitzeko eta instalatzeko lizitazioaren gehieneko aurrekontuari dagokiona (1.128.005,56 €, BEZa barne); dagokion gutxieneko puntuazioa esleituko zaio, honako formula honen arabera:

$$Pmin = 30 \times (1 - (3 \times Bmax))$$

(Bmax = Gehieneko beherapena)

Pmin kalkulaturik lortutako emaitza negatiboa bada, zero dela joko da, Pmin=0.

Gainerako beherapenei, Bi, "i" eskaintza bakoitzari dagozkionei, interpolazio lineala erabilita, abzisen ardatzean, P1 eta P2 puntuen artean, ordenatuen ardatzean dagozkien puntuak esleituko zaizkie.

Beherapena (Bi) zatiketa baten emaitza da, non zatikizuna honako hauen arteko diferentzia den: batetik, lizitazioaren gehieneko aurrekontua, lurpeko edukiontzien 63 multzoren hornidura eta

instalazioari dagokiona (*1.128.005,56 euro, BEZa barne*), kontratuaren xedea den zerbitzua emateagatik; eta bestetik, "i" eskaintza ekonomikoa, BEZa barne; bestalde, zatiketaren zatitzailea gehieneko lizitazio aurrekontua da, lurpeko edukiontzien 63 multzoren hornidura eta instalazioari dagokiona, BEZa barne.

Bi = (Gehieneko lizitazio aurrekontua – "i" eskaintza ekonomikoa) / Gehieneko lizitazio aurrekontua

Aurrerago definitutako zuzena lortzeko, lehiaketan onartu diren oinarrizko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintza ekonomikoak

Izan ere, "i" proposamen ekonomiko bat baxuegia dela eta, ondorioz, proposamen ekonomiko anormala edo neurriz kanpokoa dela esango da, eskaintza horri dagokion "i" beherapenak (Bi) lehiaketan onartutako eskaintza guztien batez besteko beherapena 10 puntu portzentualetan gainditzen duenean, non "i" horrek 1etik "n"-ra arteko balioak hartzen dituen, eta "n" baloratzeko onartu diren eskaintzen kopurua den".

Eskaintza batean edo batzuetan hasiera batean neurriz kanpoko beherapena antzematen bada, baina aztertu ondoren eskainitako prezioak proiektua burutzeko egokiak direla ulertzen bada, neurriz kanpoko beherapena dagoela pentsarazi duen desbideraketa behar bezala justifikatzen baita, proposamen horiek baliagarritzat joko dira eta onartuko dira, eta azken eskaintza ekonomikoenari (gehieneko beherapen berria) dagokiona birkalkulatuko da P1 puntu gisa; gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 30 puntu.

10.1.2) Lurpeko edukiontzien 63 multzoen **prebentziozko mantentzeari dagokion eskaintza ekonomikoa:** kontzeptu honetan, **gehienez ere 10 puntu** emango dira

Prebentziozko mantentze lanak egiteko zerbitzuari dagokion eskaintza ekonomikoak honako puntuazio sistema honen arabera baloratuko dira:

Urteko Prebentzio Mantentze Eskaintza Ekonomikotzat hartuko da mantendu beharreko edukiontzien guztizko kopurua (63), urtero egin beharreko berrikuspenak (6) eta lurpeko nitxo bakoitzaren PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANEN 7. PREZIOA biderkatuta lortzen den balioa.

Urtebeteko prebentziozko mantentzearen "i" eskaintza ekonomikoa = 63 * 6 * 7. Prezio unitarioa, LURPEKO NITXO BAKOITZEKO PREBENTZIOZKO MANTENTZE LANAK

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, honako formula honen arabera kalkulatuko dira:

"i" prebentziozko mantentzearen puntuak = (10,00 x Pmin) /Pi

Non:

"i" prebentziozko mantentzearen puntuak: "i" eskaintzari esleitutako puntuazioa da ("i" horren balioa 1etik n-ra doa, eta "n" baloratuko diren eskaintza guztien kopurua da).

Pmin: Urtebeteko prebentziozko mantentzearen eskaintza ekonomiko merkeenaren balioa da, aurkeztu diren eta baloratzeko onartu diren eskaintza ekonomiko guztiak kontuan hartuta.

eta **Pi:** baloratuko diren "n" eskaintzen artean, "i" zenbakia duen eskaintza ekonomikoan aipatutako urtebeteko prebentziozko mantentzea egiteko eskaintza ekonomikoaren balioa da.

10.1.3) Lurpeko edukiontzien 63 multzoen **mantentze zuzentzailean erabiliko den eskulanaren prezioa:** kontzeptu honetan, **gehienez ere 5 puntu** emango dira

Mantentze zuzentzailean erabiliko den eskulanaren prezioari buruzko proposamen ekonomikoak, orduko tarifa, honako puntuazio sistema honi jarraikiz baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikotzat joko da MANTENTZE ZUZENTZAILEAN ERABILI BEHARREKO ESKULANARI dagokion 8. prezioa, ORDUTEGI-TARIFA, BEZa barne.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, honako formula honen arabera kalkulatuko dira:

"i" orduko tarifagatik emandako puntuak = (5,00 x Pmin) /Pi

Non:

"i" orduko tarifagatik emandako puntuak: "i" eskaintzari esleitutako puntuazioa da ("i" horren balioa 1etik n-ra doa, eta "n" baloratuko diren eskaintza guztien kopurua da).

Pmin: orduko tarifa baxuena duen eskaintza ekonomikoaren balioa da, aurkeztu diren eta baloratzeko onartu diren eskaintza ekonomiko guztiak kontuan hartuta.

eta **Pi:** baloratuko diren "n" eskaintzen artean, "i" zenbakia duen eskaintza ekonomikoko orduko tarifaren prezioa da.

10.1.4) Lurpeko edukiontzien 63 multzoen **mantentzea burutzeko erabiliko diren ordezko piezen prezioa:** kontzeptu honetan, **gehienez ere 5 puntu** emango dira

Ordezko piezen prezioari buruzko proposamen ekonomikoak honako puntuazio sistema honi jarraikiz baloratuko dira:

Ordezko piezen prezioa jasotzen duen eskaintza ekonomikoa, lizitatzaile bakoitzaren kasuan baloratu behar dena, jarraian zerrendatzen diren osagaien prezioen batura izango da (BEZa barne); ordezko pieza horiek baldintza agiri honen 3.3 apartatuan dagoen zerrendan daude, eta lizitatzaileak nahitaez adierazi behar ditu ordezko pieza hauen prezioak:

9.1. Kaxa elektrikoa

- 9.1.1 Motorra, 4 kW
- 9.1.10 Multzoaren kontrolerako modulua
- 9.1.11 Urrunetik kontrolatzeko panela
- 9.1.13 Elikatze iturria

9.1.15 Tag irakurgailua, tag kodearen bidez irekitzeko
9.1.17 Kontsola igorlea
9.1.25 Kontrol zentralaren modulua
9.1.34 Banagunea
9.1.35 Rack 3EQ kita

9.2. Zirkuitu hidraulikoa

9.2.1.3 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 3. gunea
9.2.1.4 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 4. gunea
9.2.1.5 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 5. gunea
9.2.1.6 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 6. gunea
9.2.1.7 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 7. gunea
9.2.1.11 Multzo hidraulikoa, lurpekoen 11. gunea
9.2.9 CLT zilindroa
9.2.13 Ponpa bikoitza
9.2.22 Elektrobalbula, C-3DG4U

9.3. Plataforma jasotzailea

9.3.1 Plataformaren polea eta gidariaren multzoa
9.3.10 Gomazko zorua
9.3.13 Xafla galvanizatua

9.4. Tapa eraisgarria

9.4.2 Tapa multzoa

9.5. Ura ateratzeko ponpa

9.5.2 Ur ponpa + kita

9.6. Kablea

9.6.4 Kablearen gidaria

9.7. Buzoia

9.7.1 Buzoiaren danbor herdoilgaitza
9.7.2 Buzoiaren atea, eskuz irekitzekoa (danbor herdoilgaitza)
9.7.3 Buzoiaren danborra
9.7.4 Buzoia blokeatzeko multzoa

Ordezko piezen prezioa dela eta (BEZa barne) eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, honako formula honen arabera kalkulatuko dira:

"i" ordezko piezengatik emandako puntuak = (5,00 x Pmin) /Pi

Non:

"i" ordezko piezengatik emandako puntuak: "i" eskaintzari esleitutako puntuazioa da ("i" horren balioa 1etik n-ra doa, eta "n" baloratuko diren eskaintza guztien kopurua da).

Pmin: ordezko piezen prezioen baturaren balioa da, BEZa barne, eskaintza ekonomiko baxuenekoa, aurkeztu diren eta baloratzeko onartu diren eskaintza guztiak kontuan hartuta.

eta **Pi:** baloratuko diren "n" eskaintzen artean, "i" zenbakia duen eskaintza ekonomikoan aipatutako ordezko piezen prezioen batura da.


10.1.5) Lurpeko edukiontzien 63 multzoak **hornitu eta instalatzeko epea:** kontzeptu honetan, **gehienez ere 4 puntu** emango dira

Edukiontziak hornitu eta instalatzeko eskainitako epeak honako puntuazio sistema honen arabera baloratuko dira:

Puntuak entrega epearen arabera esleituko dira, multzo guztiak hornitu eta erabat instalatzeko behar den eta kontratua formalizatzen den unetik zenbatzen hasten den denbora osoaren arabera. Epea hilabetetan adieraziko da.

Eskaintza bakoitzari esleitu behar zaizkion puntuak P2 eta P1 puntuen artean interpolazio lineala eginez kalkulatuko dira.

- **P2** puntua 9 hilabeteko entrega epeari dagokion balioak adierazten du, abzisa ardatzean; eta ordenatuen ardatzean 0 puntuko balioa dagokio.
- **P1** puntua 5 hilabeteko entrega epeari dagokion balioak adierazten du, abzisa ardatzean; eta ordenatuen ardatzean 4 puntuko balioa dagokio.



Eskaintza bakoitzari esleitu behar zaizkion puntuak P2 eta P1 puntuen artean interpolazio lineala eginez kalkulatuko dira.

5 eta 9 hilabete bitarteko entrega epeak proposatzen dituzten eskaintzei dagozkien puntuak esleituko zaizkie, P1 eta P2 puntuen arteko interpolazio lineala eginda.

5 hilabetetik beherako entrega epeak proposatzen dituzten eskaintzei 4 puntu esleituko zaizkie (gehieneko balioa).

10.1.6) Edukiontziak gune batean instalatzeko, **bide publikoa hartu behar den gehieneko denbora:** kontzeptu honetan, **gehienez ere 2 puntu** emango dira

Edukiontziak gune bakoitzean jartzeko, bide publikoa hartu behar den gehieneko denbora honako puntuazio sistema honi jarraikiz baloratuko da:

Edukiontziak gune bakoitzean jartzeko, bide publikoa hartuta egongo den lanegunen gehieneko kopuruaren arabera esleituko dira puntuak. Denbora hori lanegunetan adieraziko da.

Eskaintza bakoitzari esleitu behar zaizkion puntuak P2 eta P1 puntuen artean interpolazio lineala eginez kalkulatuko dira.

P2 puntua, aurkeztu diren eta baloratzeko onartu diren eskaintza guztien artean, bide publikoa okupatuta egongo den 15 egun kopuru handienari dagokion balioak adierazten du, baimendutako bidea okupatzearen gehienezko lanegunak izanik, abzisa ardatzean; eta ordenatuen ardatzean 0 puntuko balioa dagokio.

P1 puntua, aurkeztu diren eta baloratzeko onartu diren eskaintza guztien artean, bide publikoa okupatuta egongo den lanegun kopuru txikienari dagokion balioak adierazten du, abzisa ardatzean; eta ordenatuen ardatzean 2 puntuko balioa dagokio.

Bide publikoa okupatzeko egunen bitarteko kopuruak proposatzen dituzten eskaintzei dagozkien puntuak esleituko zaizkie, P1 eta P2 puntuen arteko interpolazio lineala eginda.

10.1.7) Horniduraren eta instalazioaren bermearen epea: kontzeptu hau dela eta, **gehienez ere 3 puntu** emango dira

Lurpeko edukiontzien horniduraren, instalazioaren eta obraren, beharrezkoa izanez gero, bermearen iraupena, puntuazio-sistema honen arabera baloratuko dira:

Berme orokorraren gutxieneko epea (2 urtekoa) baino epe luzeago bat eskaintzen bada, 0,5 puntu emango da gehitutako urte bakoitzeko; gehienez ere, 8 urtekoa izan daiteke bermearen iraupena (3 puntu).

"i" bermeari dagozkion puntuak = 0,5 x ("i" bermearen iraupena urtetan – 2 urte)

Non:

"i" bermeari dagozkion puntuak: "i" eskaintzari esleitutako puntuazioa da ("i" horren balioa 1etik n-ra doa, eta "n" baloratuko diren eskaintza guztien kopurua da).

"i" bermea: urtetan adierazitako iraupena (Berme orokorra + Berme teknologikoa), "i" proposamenari dagokiona, baloratzeko onartu diren eta –bermeari dagokionez– 2 urteko bermea edo luzeagoa proposatzen duten "n" eskaintzak kontuan hartuta.

8 urtetik gorako bermea proposatzen duten eskaintzei 3 puntu esleituko zaizkie (gehieneko puntuazioa).

10.1.8) Mantentze lanei dagokionez bermearen epea: Kontzeptu hau dela eta, **gehienez ere puntu 1 emango**

Bermearen iraupena. Mantentze-lanei dagokienez (mantentze-lan zuzentzaileak eta prebentziozko mantentze-lanak), puntuazio-sistema honen arabera baloratuko da:

0,25 puntu emango dira bermearen iraupena urtebeterako ezarritako gutxieneko berme-epea baino gehiago luzatzen den urte bakoitzeko, eta gehienez ere puntu 1 (5 urte).

"i" bermeari dagozkion puntuak = 0,25 x ("i" bermearen iraupena urtetan – urtebete)

Non:

"i" bermeari dagozkion puntuak: "i" eskaintzari esleitutako puntuazioa da ("i" horren balioa 1etik n-ra doa, eta "n" baloratuko diren eskaintza guztien kopurua da).

"i" bermea: urtetan adierazitako iraupena, "i" proposamenari dagokiona, baloratzeko onartu diren eta –bermeari dagokionez– urtebeteko bermea edo luzeagoa proposatzen duten "n" eskaintzak kontuan hartuta.

5 urtetik gorako bermea proposatzen duten eskaintzei puntu 1 esleituko zaie (gehieneko puntuazioa).

10.2) Balio judizio baten ondorioz esleitzen diren puntuak emateko irizpideak: gehienez ere 40 puntu, 2. GUTUN AZALA

Jarraian azaltzen diren irizpideetan, kontuan izango dira lizitatzaileek idatzitako TXOSTEN TEKNIKOAREN kalitatea eta ondorioak, honako elementu hauei dagokienez: proposatutako multzoen ezaugarriak, igotzeko sistemak, sistema hidrauliko eta elektrikoak, ura ateratzeko sistemak, segurtasun gailuak, buzoiak eta tapak. Halaber, kontratuaren xede diren lanak antolatzeko eta emateko modua baloratuko da, baita mantentze zerbitzuaren errendimendu eta kalitate onena lortzea ahalbidetzen duten giza baliabideak eta baliabide materialak ere; gehienez ere, 40 puntu emango dira.

Txosten teknikoa, non EZIN BAITA SARTU formulen bidez ebaluatzen den ezaugarririk, hala nola: eskaintza ekonomikoa, epea, bide publikoa hartzeko gehieneko denbora, bermeen iraupena.

Memoria teknikoan, baldintza-agiri honetako 5. atalean agertzen diren betekizun guztiak betetzeari buruzko berariazko aipamena jaso behar da, bai eta, bestetik, irizpide hauen arabera baloratuko diren ezaugarri teknikoak ere:

10.2.1) Altxatzeko multzo hidraulikoak eta kako bikoitzekoak. Gehienez, 12 puntu

Puntuak esleitzeko, proposatutako multzoei buruzko txosten teknikoan agertzen den deskribapena baloratuko da: igotzeko eta jaisteko sistemak, karga ahalmena, sendotasuna, erabilitako materialen kalitatea, lodierak, plataforma eta barne egitura, multzo osoaren estankotasuna, hondakinak multzoaren barrura erortzea saihestuko duten elementuak.

Beira biltzeko edukiontziaren kasuan, gainera, honako multzo honen pisua: buzoia + tapa + edukiontzia. Materialen kalitatea, multzoaren dimentsioak eta altuera.

Aintzat hartuko da lizitatzaileak dauden instalazioak ezagutzea, baita egingo den instalazio berriaren idatzi beharreko proiektuaren norainokoa, eta multzoak muntatu, instalatu eta martxan jartzeko prozesuaren deskribapen zehaztua ere. Muntaia egiteko fasean eskatzen den obra zibila eta hartu behar den bide publikoaren tartea.

10.2.2) Sistema elektrohidraulikoak. Gehienez, 2 puntu

Puntuak esleitzerakoan, txosten teknikoan agertzen den deskribapena baloratuko da, honako elementu hauei dagokienez: sistema hidraulikoak eta sistema elektrikoak; zentral hidraulikoaren deskribapena, engranajezko ponpak. Olio depositua. Olio mota. Laneko presioa, gehieneko presioa. Segurtasun balbulak. Motor elektrikoa, kaxa elektrikoa, babes elektrikoak, IP babesa, segurtasun kommutagailua, elikatze konexioak, hargune osagarriak. Urruneko kontrola, kontsolak eta kontrolagailuak.

10.2.3) Ura ateratzeko sistema. Gehienez, puntu bat (1)

Puntuak esleitzerakoan, txosten teknikoan agertzen den deskribapena baloratuko da, honako elementu hauei dagokienez: ponpaketa sistemak; ponpak, materialak, babes sistemak, noranzko bakarreko balbulak, maniobra sistemak, hoditeria eta eroanbideak.

10.2.4) Tapak eta buzoiak. Gehienez, 6 puntu

Puntuak esleitzerakoan, txosten teknikoan agertzen den deskribapena baloratuko da, erabili nahi diren tapa eta buzoiei dagokienez. Taparen goialdean erabilitako akabera mota, materialen kalitatea, birziklatutako materialak erabili izana eta ez labaintzeko propietateak. Taparen erresistentzia, estankotasuna, markoarekiko lotura eta artikulazioa, zoladurara egokitzea. Buzoiak, geratzen den hutsunea (gutxienez 400 mm x 670 mm), altzairuaren kalitatea (korrosioarekiko erresistentzia, itsasaldeko giroarekikoa, AISI 316 baino hobea izatea), danborraren edukiera (gutxieneko 70 litrokoa baino handiagoa izatea) eta buzoiaren danborra irekitzeko ahalmena (gutxieneko irekidura: 600 mm luze x 390 mm altu), buxadurak saihesteko neurriak. Gaikako bilketarako erabil daitezkeen buzoi desberdinak (ø 200 mm, ø 300 mm-ko diametroko ontziak eta papera (160x590 mm), hondakin motaren identifikazioa edo bereizgarria; blokeo sistemak, automatikoki (grabitatez) ixteko sistema; irekitzeko pedalaren aukera, atzeko ataka, sarbidea kontrolatzeko aukerak (irakurgailu-giltza); edukiontziaren betetze maila detektatzeko sentsorea; blokeo sistema eta beteta egotea argiaren bidez erakusten duen adierazgailua. Mantentze lanak egiteko irisgarritasuna. Motor kutxatilaren tapak irekitzen laguntzeko gas zilindroekin.

10.2.5) Segurtasun gailuak. Gehienez, 7 puntu

Puntuak esleitzerakoan, txosten teknikoan agertzen den deskribapena baloratuko da, honako elementu hauei dagokienez: lurpeko edukiontzien multzoetan –bai igotzeko sistema hidraulikoaz baliatzen diren edukiontzi multzoetan, bai garabia erabiliz igotzen diren edukiontzi multzoetan– jarritako segurtasun gailuak. Tapa ustekabean itxi edo irekitzea eragozten duten sistemak. Eskuko segurtasun barrak eta lokailuak. Ibilbide amaierako sentsoreak. Zulogunean begiratzeko leihoa eta sarbidea, eta sartzeko zailak diren guneak; seinaleztapen akustikoa eta argiak, ordu bereizketarekin; segurtasun errotuluak.

10.2.6) Prebentziozko mantentzea. Gehienez, 5 puntu

Puntuak esleitzeko, txosten teknikoan agertzen den deskribapena baloratuko da, prebentziozko mantentzea egiteko zerbitzuari esleitutako baliabideei dagokienez. Giza baliabideak, langileen kopurua eta prestakuntza maila kontuan hartuta. Zerbitzuari lotutako ibilgailuen eta baliabide materialen ezaugarriak eta kopurua.

10.2.7) <u>Mantentze zuzentzailea.</u> <u>Gehienez, 5 puntu</u>

Puntuak esleitzeko, txosten teknikoan agertzen den deskribapena baloratuko da, mantentze zuzentzailea egiteko zerbitzuari esleitutako baliabideei dagokienez. Giza baliabideak, langileen kopurua eta prestakuntza maila kontuan hartuta. Zerbitzuari lotutako ibilgailuen eta baliabide materialen ezaugarriak eta kopurua. Lan egiteko modua eta gorabeherei erantzuteko denbora.

10.2.8) <u>Hainbat ziurtagiri.</u> <u>Gehienez, 2 puntu</u>

Honako ziurtagiri hauek edukiz gero (eta behar bezala egiaztatuz gero), puntuak emango dira:

- ISO 9001 ziurtagiria (kalitatearen kudeaketa) (0,5 puntu)
- ISO 14001 ziurtagiria (ingurumen kudeaketa) (0,5 puntu)
- OHSAS ziurtagiria (Laneko Segurtasun eta Osasun Erregelamendua) 1,0 puntu)

<u>Berdinketa ebazteko irizpideak</u>

Eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, honela jokatuko da:

- Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena konparatuko da; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio neurrien bidez langile gehien duena.

- Berdinketa ebatzi ezean, langileen artean aldi baterako kontratu gutxiago dituen enpresa lehenetsiko da.

- Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresaren alde ebatziko da.

- Hala ere, ebazten ez bada, zozketaren bidez ebatziko da, baldin eta aurreko irizpideak aplikatzeak berdinketa hautsi ez badu.

11) <u>INFORMAZIO OSAGARRIA</u>

11.1. FORMULEN HAUTAKETA JUSTIFIKATZEA:

11.1.1. <u>Eskaintza ekonomikoa, multzoak hornitu eta instalatzeari dagokionez:</u>

Puntuak interpolazio linealaren bidez P1 eta P2 puntuen artean banatzen dituen formula, non P2 lizitazio prezioaren antzekoa den eta P2=30 x (1–(3 x gehieneko beherapena)) legokiokeen; P1, aldiz,

eskaintza ekonomikoena da, hau da, beherapen handiena proposatzen duena, eta horri 30,00 puntu emango zaio. Tarteko eskaintzei puntu bien arteko interpolazio lineala aplikatuz esleitzen zaizkie puntuak, abzisa ardatzean eskaintza bakoitzaren beherapenen balioak eta ordenatuen ardatzean eskaintza bakoitzari esleitu behar zaizkion puntuak jarrita.

Hautatutako formulak eskaintza baxuenari kontzeptu horrengatik eslei daitezkeen puntu guztiak esleitzen dizkio, eta lizitazio prezioari honako hauek: gehieneko puntuazioa (1 – 3 x gehieneko beherapena) faktoreaz biderkatuz lortutako puntuak, gehieneko beherapena bateko hainbestean adierazita.

Ondorioz, lizitatzaile batek zerbitzua lizitazio prezioaren truke ematea eskaintzen badu, puntu gutxiago jasoko du ahalegina egin duten eta lizitazioarena baino prezio baxuagoa proposatzen duten eskaintzaileek baino.

Gainera, lizitazio prezioa proposatzen duen eskaintza baten puntuazioa are txikiagoa izango da, eskaintza ekonomikoenaren beherapena kontuan hartuta; izan ere, nabarmen urrunduko da puntuak alderantzizko proportzionaltasunaren arauaren bidez banatzeko irizpidetik, esleitu beharreko puntuak interpolatzen diren zuzenaren malda nabarmen handiagoa baita zenbat eta baxuagoa izan eskaintza ekonomiko onena. Horrela saritzen da prezio txikiagoa eskaintzeko ahalegina; gainera, erabilitako formularen beste ezaugarri bat hauxe da: lizitatzaile desberdinek antzeko beherapenak eskaintzen badituzte, formulak antzeko puntuazioak esleitzen dizkie.

11.1.2. Puntuen esleipena, prebentziozko mantentzeari dagokion eskaintza ekonomikoa kontuan hartuta

Puntuak eskaintza ekonomikoen alderantzizko proportzioaren araberako banaketaren bidez esleitzea proposatzen da; hau da, prebentziozko mantentzea egiteko zerbitzuaren prezio handienei puntuazio txikienak dagozkie.

11.1.3. Puntuen esleipena, mantentze zuzentzailean erabiliko den orduko tarifa eta ordezko piezen prezioak kontuan hartuta

Puntuak orduko tarifaren eta ordezko piezen prezioaren balioen alderantzizko proportzioaren araberako banaketaren bidez esleitzea proposatzen da; hau da, orduko tarifaren edo ordezko piezen prezio handienei puntuazio txikienak esleituko zaizkie.

Horrela, proposamen hobeak egiten dituzten lizitatzaileen ahalegina baloratuko da, eskaintza ekonomiko, orduko tarifa eta ordezko piezen prezio baxuagoak eskaintzen dituztelako.

11.1.4. Puntuen esleipena, multzoak hornitu eta instalatzeko epea eta bide publikoa hartu behar den gehieneko denbora kontuan hartuta

Formulak P1 eta P2 puntuen arteko interpolazio linealaren bidez banatzen ditu puntuak; formulan, P2 epe luzeenaren antzekoa da eta 0 puntu esleitzen zaio, eta P1 epe laburrena da, puntuazio handiena jasotzen duena. Tarteko eskaintzei puntu bien arteko interpolazio lineala aplikatuz esleitzen zaizkie puntuak.

Hornidura epeari dagokionez, 5 hilabeteko epeari puntuazio handiena esleitzen zaio; epe laburragoek 4 puntu jasotzen dute.

Horrela, epe laburragoak proposatzen dituzten lizitatzaileen ahalegina baloratzen da.

11.1.5. Bermeen iraupena

Horniduraren eta instalazioaren bermea: Puntuak hazkuntza linealaren bidez esleitzea proposatzen da, iraupenaren bigarren urtetik aurrera; gehienez 3 puntu lor daitezke. Hau da, bermearen iraupena zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta puntu gehiago emango zaio eskaintzari; gehienez 3 puntu lor daitezke.

Mantentze lanei dagokionez bermea: Puntuak hazkuntza linealaren bidez esleitzea proposatzen da, iraupenaren lehenengo urtetik aurrera; gehienez puntu 1 lor daitezke. Hau da, bermearen iraupena zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta puntu gehiago emango zaio eskaintzari; gehienez puntu 1 lor daitezke.

12) LIZITAZIOAREN OINARRIZKO PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

Lizitazio prezioa kalkulatzeko, bi kasu hartu dira kontuan, kostuen banaketa ez baita berdina hornidura eta instalazioaren kasuan eta mantentze zerbitzuaren kasuan.

Lurpeko edukiontzien multzoak hornitu eta instalatzearen kostuen banaketari dagokionez, kostua osatzen duten idazpenen garrantzia hauxe da: Zuzeneko langileen gastua: % 20; zeharkako langileen kostua: % 13; horniduren kostua: % 45; finantza gastua: % 5; ibilgetuaren amortizazioa: % 5; gastu orokorrak: % 6; mozkin industriala % 6; hau da, gastu orokorrak kostu osoaren % 70 dira, zeharkako gastuak % 18 eta beste gastu batzuk % 12.

Multzoen hornidura eta instalazioari loturiko kostuen kalkulua								
Kostuen banakapena, kontzeptuen arabera	Kontzeptuak kostuetan duen garrantziaren %				Kontzeptuak kostuetan duen garrantzia eurotan (BEZ KANPO)			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk	
Langileen gastuak, Zuzeneko	0,2				186.447,20	0,00	0,00	0,00

eskulana								
Langileen gastuak, Zeharkako eskulana		0,13			0,00	121.190,68	0,00	0,00
Hornidurak	0,45				419.506,20	0,00	0,00	0,00
Gastu finantzarioak		0,05			0,00	46.611,80	0,00	0,00
Ibilgetuaren amortizazioa	0,05				46.611,80	0,00	0,00	0,00
Gastu orokorrak			0,06		0,00	0,00	55.934,16	0,00
Etekin industriala				0,06	0,00	0,00	0,00	55.934,16
GUZTIRA	0,7	0,18	0,06	0,06	652.565,20	167.802,48	55.934,16	55.934,16
	1,00				932.236,00			

Lurpeko edukiontzien multzoak mantentzearen kostuen banaketari dagokionez, kostua osatzen duten idazpenen garrantzia hauxe da: Zuzeneko langileen gastua: % 40; zeharkako langileen kostua: % 5; horniduren kostua: % 35; finantza gastua: % 2; ibilgetuaren amortizazioa: % 6; gastu orokorrak: % 6; mozkin industriala % 6; hau da, gastu orokorrak kostu osoaren % 81 dira, zeharkako gastuak % 7 eta beste gastu batzuk % 12.

Lurpeko edukiontziak mantentzeko zerbitzuari dagozkion kostuen kalkulua								
Kostuen banakapena, kontzeptuen arabera	Kontzeptuak kostuetan duen garrantziaren %				Kontzeptuak kostuetan duen garrantzia eurotan (BEZ KANPO)			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk	
Langileen gastuak, Zuzeneko eskulana	0,4				274.909,08	0,00	0,00	0,00
Langileen gastuak, Zeharkako eskulana		0,05			0,00	33.363,64	0,00	0,00
Hornidurak	0,35				240,545,44	0,00	0,00	0,00
Gastu finantzarioak		0,02			0,00	13.745,45	0,00	0,00
Ibilgetuaren amortizazioa	0,06				41,236,36	0,00	0,00	0,00
Gastu orokorrak			0,06		0,00	0,00	41.236,36	0,00
Etekin industriala				0,06	0,00	0,00	0,00	41.236,36
GUZTIRA	0,81	0,07	0,06	0,06	556.690,89	48.109,09	41.236,36	41.236,36
	1,00				687.272,70			

13) <u>ARAU BEREZIAK, ENPRESA KONTRATISTAREN LANGILE LAN-KONTRATUDUNEI DAGOKIENEZ</u>

Enpresa kontratistari soilik dagokio kontratua gauzatzeko esleitutako lantaldea osatuko duten langileen hautaketa. Langileek baldintza agirietan eskatzen diren titulazio eta esperientziari buruzko betekizunak bete beharko dituzte [*titulazio eta esperientziari dagokionez, berariazko baldintzak ezartzen badira*], eta "erakunde kontratatzaileak" baldintza horiek betetzen ote diren egiaztatzeko eskubidea izango du.

Enpresa kontratistak ahaleginak egingo ditu lantaldearen egonkortasuna bermatzeko; osaeraren aldaketak unean unekoak izango dira, eta arrazoi justifikatuengatik egingo dira, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez aldatzeko [*eskakizuna justifikatzen duten arrazoiak badaude*]. Aldaketa guztien berri "erakunde kontratatzaileari" emango zaio.

Enpresa kontratistak bere gain hartzen du enpresari orori dagokion zuzendaritza ahalmena benetan, eraginkortasunez eta era jarraituan gauzatzeko betebeharra, kontratua gauzatzeaz arduratzen den lantaldeko kideen gainean. Hain zuzen, bere gain hartuko du soldatak negoziatu eta ordaintzeko ardura, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentzia kasuetan langileak ordezkatzea, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak (kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea barne, hala badagokio), laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina ahala baliatzea, eta langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratu harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.

Enpresa kontratistak bereziki zainduko du kontratua gauzatzeko atxikitako langileek kontratuaren xede gisa baldintza agiri hauetan mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten eginkizunak gainditu gabe garatzen dutela beren jarduera.

Enpresa kontratistak bere bulego edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, salbu eta baimena badu zerbitzuak sektore publikoko entitate, antolakunde eta erakundeen bulegoetan emateko. Kasu horretan, enpresa kontratistaren langileek enplegatu publikoen lanpostuak ez diren tokiak okupatuko dituzte. Halaber, enpresa kontratistaren ardura da betebehar hori betetzen dela zaintzea. Kontratua gauzatzearren, zerbitzuak sektore publikoa osatzen duten entitate, antolakunde eta erakundeen bulegoetan emateko beharra baldintza agirian jasota utzi eta arrazoitu beharko da.

Enpresa kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du [*azpikontratatutako zerbitzuaren ezaugarrien arabera, puntu honetan, antolamendu sistema desberdinak ezar daitezke*]; koordinatzailea enpresako langilea izango da, eta honako betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

a) Enpresa kontratistaren eta erakunde kontratatzailearen artean bitartekari gisa aritzea, eta enpresa kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldea osatzen duten langileen arteko komunikazioa bideratzea, kontratua gauzatzearekin zerikusia duten kontu guztietan.

b) Kontratua gauzatzeaz arduratzen den langileen artean lana banatzea, eta, kontratatutako zerbitzua ematea dela eta, langile horiei beharrezko aginduak eta jarraibideak ematea.

c) Lantaldea osatzen duten langileek dagozkien eginkizunak behar bezala betetzen dituztela zaintzea eta lanera etortzen direla kontrolatzea.

d) Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen oporraldiak antolatzea; horretarako, enpresa kontratistak lana ondo koordinatu behar du erakunde kontratatzailearekin, zerbitzuaren funtzionamendu ona oker ez dadin.

e) Unean uneko edo behin betiko aldaketak –kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran– erakunde kontratatzaileari jakinaraztea.

14) BESTE BATZUEK JASAN DITZAKETEN KALTEAK

Adjudikazioduna izango da kontratua gauzatzean behar diren eragiketen ondorioz beste batzuei eragindako kalte-galeren arduradun bakarra. Hori dela eta, lanaren, segurtasun eta higienearen eta

ibilgailuen trafikoaren eremuan indarreko antolamenduak eskatzen dituen aseguruak alde batera utzita edo horiekiko osagarriak, eskaintzaileek beren eskaintzetan aseguru polizen proiektuak aurkeztu beharko dituzte eta berariaz aipatuko dira arriskuen estaldurak, primak, kalte ordainak eta gainerako alderdiak, zerbitzuaren gorabeherei aurre egiteko sartu behar badira. Ildo horri jarraiki, Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzaile saihestuko da.